



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko maiatzaren 28a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko farmazia-prestazioen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Parlamentuko jarduneko Legelari Nagusiaren 48/2019 ebazpena, maiatzaren 27koa (36. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko farmazia-prestazioen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Barzorde Iraunkorak, 2019ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko farmazia-prestazioen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko farmazia-prestazioen kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Farmazia-prestazioaren kudeaketa O-NOZEN (4. or.).

II.1. Alderdi orokorrak (4. or.).

II.2. Antolamenduzko egitura (5. or.).

II.3. Errezeta elektronikoen ezarpena (6. or.).

II.4. Informazio sistemak (8. or.).

II.5. Aplikatzekoa den oinarrizko araudia (9. or.).

III. Helburuak, norainokoa eta mugak (9. or.).

IV. Iritzia (11. or.).

IV.1. Barne kontrolari buruzko konklusioa (12. or.).

IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (13. or.).

IV.3. Auditoretza finantzarioko iritzia (14. or.).

V. Konklusioak eta gomendioak (14. or.).

V.1. Farmazia prestazioaren kudeaketarako prozedura (14. or.).

V.2. Farmazia-prestazioaren kudeaketarako prozesua betetzeari buruzko auditoretza eta auditoretza finantzarioa (23. or.).

V.3. Amaierako konklusioa eta gomendioak (23. or.).

1. eranskina. Farmazia-prestazioaren kudeaketa-prozeduraren eskema teknologiko orokorra (26. or.).

2. eranskina. Farmazia-prestazioaren kudeaketari aplikatzekoa zaion oinarrizko araudia (27. or.).

3. eranskina. O-NOZen errezeta elektronikoa kudeatzeko prozedura (28. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (29. or.)

Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (35. or.)

I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2018ko urterako bere fiskalizazio-programan sartu zuen fiskalizazio-txosten bat egitea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (O-NOZ, hemendik aurrera) farmazia-prestazioaren kudeaketari buruz.

Farmazia-prestazioaren kudeaketak ukitzen dituen informazio-sistemei buruzko lan honen ezaugarri bereziak direla eta, eta kontuan hartuta lehenengo aldia zela Ganberak gisa honetako txosten bat egiten zuela, auditoretza informatikoan aditua den enpresa bat kontratatu genuen, Kontuen Ganberaren fiskalizaziorako lantaldearekin lankidetzan jardun zezan.

Lana 2018ko azarotik 2019ko otsailera egin zuen auditoretzako bi teknikarik, sistema informatikoetako goi teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboan laguntzarekin.

Txostenak bost atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, O-NOZeko farmazia-prestazioaren kudeaketarekin lotutako alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak egindako lanaren helburua, norainokoa eta mugak deskribatzen ditu; laugarrenak farmazia-prestazioarekin lotutako barne kontrolari eta informazio-sistemei buruzko konklusioa jasotzen du, bai eta bete-tezari eta arlo finantzarioari buruz daukagun iritzia ere; eta bosgarrenean, azkenekoan, egindako lanaren konklusioak eta gomendioak azaltzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu honako erakunde hauetako langileei, eman diguten laguntzaren-gatik: Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzua, Farmazia Zuzendariordetza, Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzua, Farmazia Ikuskapenaren Atala, Norbanakoaren Osasun Txartelaren Atala, Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak (IBPZN, hemendik aurrera) kontratatutako IECISA enpresa, TRACASA Instrumental SL, Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua, Osasuneko Informazio Sistemen Zerbitzua, Azpiegitura Teknologikoen eta Euskarri Zentroaren Zerbitzua, Aurrekontuen eta Kontabilitatearen Zerbitzua, Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofiziala (NFEO, hemendik aurrera), farmazia-bulegoak eta farmazia-prestazioaren kudeaketan parte hartzen duen kanpoko enpresa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan jasotakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsonen jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzaizkien:

- Osasun Departamentuko kontseilaria.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.
- Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria.
- Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria.
- NFEOko lehendakaria.

Kontuen Ganberak ezarritako epean, honako departamentu eta erakunde hauek aurkeztu dituzte alegazioak: NFEO; Nafarroako Zerga Ogasuna; Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria eta Osasun Departamentua. Alegazio hauek ez dute ekarri gure txostenean aldaketak egin behar izatea, NFEOk egindako xehetasun bat kenduta. Alegazio horiek, Ganbera honek haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenean erantsi dira.

II. FARMAZIA-PRESTAZIOAREN KUDEAKETA O-NOZEN

II.1. ALDERDI OROKORRAK

Farmazia-prestazioaren gastua

O-NOZen farmazia-prestazioaren kudeaketak jarduera-multzo bat hartzen du bere baitan; era-kunde horrek eta entitate laguntzaileek egiten dituzte jarduera horiek. Haien xedea da herritarrek beren osasuna oneratzeko edo/eta gaixotasuna prebenitzeko behar dituzten sendagaiak eta osasun-produktuak agindu eta ematea da.

Sendagaiak eta osasun produktuak funts publikoekin finantzatzen dira salmenta-prezioaren gaineko portzentaje aldagarri batean, baldin eta langile fakultatiboen agindu bat badago eta produktu horiek legedi indardunaren arabera finantzagarriak badira.

Herritarrek ordainketan egin beharreko ekarpenaren gaur egungo araubidea (koordainketa) errenta-mailaren, adinaren eta, kasua bada, desgaitasun-graduaren arabera da; portzentaje hori Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN, hemendik aurrera) zehazten du, errentaren aitopenenaren laukitxo jakin batzuei buruz autonomia-erkidegoetako ogasuneko organoek bidualtzen dioten informazioari adierazitako parametroei buruzko beste datu batzuk gehituz. Ondoren, gaur egungo ekarpen-portzentajeak erakusten ditugu:

	Aktiboak	Pentsiodunak	
	Ekarpena (%)	Ekarpena (%)	Hileko ekarpenaren gehieneko muga
Gutxieneko errenten eta gizarteratze-errenten jasotzaileak, langabezia-prestaziorik gabeko langabetuak eta abar.	0		0
Errentak < 18.000 euro	40	10	8,23 euro hilean
18.000-99.999 euroko errentak	50	10	18,52 euro hilean
Errentak ≥ 100.000 euro	60	60	61,75 euro hilean
Ekarpen murriztuko sendagaiak*	10	10	
Mutualistak eta klase pasiboak		30	

* Kasu horietan, gaixoak gehienez 4,24 euro ordainduko ditu, sendagaiaren prezioa zein den ere.

O-NOZen gastua, farmazia-prestazioarekin lotutakoa, hiru aurrekontu-partidatan erregistratzen da. Hurrengo taulan partida horietako gastuaren bilakaera jasotzen dugu, 2013-2017 aldirako¹ (euroak, milioitan):

	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea (%) 2017/2013	Aldea (%) 2017/2016
Farmazia-prestazioak	124,90	130,56	133,89	138,87	138,59	11	-0,2
Zurgatzaileak eta beste-lako produktuak	7,51	7,61	6,66	7,42	7,75	3	4
Tratamendu medikoei atxikitze laguntzak	*	*	*	*	0,02	-	-
Guztira	132,41	138,17	140,55	146,29	146,36	11	0,05

* Urte horietan halako laguntzarik ez zegoen.

Aurreko taula aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2017ko guztizko gastua 146,36 milioi eurokoa izan zen, eta ehuneko 11 egin zuen gora 2013koaren aldean; 2016koaren ia parekoa izan zen, dena den.
- "Farmazia-prestazioak" aurrekontu-partidak aldi guztizko gastuaren ehuneko 95 egiten du; partida horren ehuneko 96 farmazia-bulegoetan egindako dispentsazioen gastuari dagokio, eta

¹ Txosten hau idazteko datan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren 2018ko aurrekontu-likidazioa onetsi gabe dago; hori dela eta, ez dugu urte horretako gastua jaso.

O-NOZek NFEOri ordaintzen dio, eta gero azken horrek farmazia-bulegoei banatzen die, ondoren ikusiko den bezala (euroak, milioitan):

	2013	2014	2015	2016	2017	2017/2013 aldea (%)	2017/2016 aldea (%)
NFEO	120,07	124,77	128,09	133,50	132,34	10	-1
farmazia-prestazioen partidaren gaineko ehu- nekoa	96	96	96	96	95	-	-

2017an, kontzeptu horren gastuak 132,34 milioi euro egin zuen; zenbateko horrek ehuneko hamar gaintzen du 2013ko ekitaldikoa, baina ehuneko bat egin du behera 2016ko ekitaldikoa-ekin alderatuta.

Partida horren gastuaren gainerako ehuneko laua horretarako eskubidea duten herritarrei ko-ordainketaren itzulketa egiteari dagokio, eta adineko pertsonentzako egoitzetako sendagaien dis-
pentsazioari.

- “Zurgatzaileak eta beste osasun produktu batzuk” partidaren gastuaren ehuneko 73, 2015-2017 aldian, O-NOZek NFEOri produktu horien dispentsazioa dela-eta egindako ordainketei da-
gokie; gero diru hori birbanatu egiten da (2013an eta 2014an produktu horiek enpresa bati eros-
ten zitzaizkion, aurrez kontratu bat eginda). 2017an gastu hori 6,41 milioi eurokoa izan zen, eta
ehuneko bederatzi eta sei egin du gora 2013koarekin eta 2016koarekin alderatuta.

- “Tratamendu medikoei atxikitzeko laguntzak” partida, berriz, berriaz eskatu behar diren la-
guntza batzuei dagokie; 2017an hasi ziren ematen laguntza horiek, sendagai batzuen koordain-
keta kolektibo jakin batzuei itzultzeko.

Aurrekontu-partiden artean bereizketa horiek dauden arren, NFEOk jasotzen dituen funts pu-
bliko guztiak, gero farmazia-bulegoei banatzen dizkienak, errezeta elektronikoaren kudeaketa-
prozesuaren barruan daude, eta, hondarrez, paperezko errezetaren prozeduran, txosten honen
II.3 atalean adierazi dugun bezala; prozedura hori gure lanaren norainokoa sartzan denez, he-
mendik aurrera, farmazia-prestazioari buruz hitz egiten dugunean, O-NOZek NFEOri ordaintzen
dion gastua ariko gara aintzat hartzen.

Farmazia-prestazioarekin lotutako jarduera

Aztertutako aldiaren dispentsatutako errezeten datu nagusiak, O-NOZen oroitidazkien arabera,
honako hauek dira:

	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea (%) 2017/2013	Aldea (%) 2017/2016
Errezeta kopurua	10.007.488	9.971.559	10.219.993	10.478.671	10.247.228	2	-2
Errezetaren batez besteko gastua	12,98	13,54	13,70	13,84	14,08	8	2

Ikusten denez, errezeta-kopurua 2017an 10,25 milioiko kopurura iritsi zen, eta 2013koarekin
alderatuta ehuneko bi igo zen; halere, ehuneko bi egin zuen behera 2016ko zenbatekoarekin al-
deratuz gero.

Errezeta bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, 2017an 14,08 eurokoa da, eta azter-
tutako aldiko altuena da: ehuneko zortzi eta ehuneko bi egin du gora 2013koarekin eta
2016koarekin alderatuta.

II.2. ANTOLAMENDUZKO EGITURA

O-NOZeko Farmazia Zuzendariordetzaren Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbi-
tzua da farmazia-prestazioari dagokion gastua kudeatzeaz arduratzen dena.

Zerbitzu horretaz gainera, honako hauek dira kudeaketa-prozesuko parte-hartzaile nagusiak:
2.487 fakultatibo, honako hauetako langileak direnak: oinarriko osasun laguntzakoak eta lagun-

tza espezializatukoak (2017ko O-NOZen oroitidazkian jasotako datua), Norbanakoaren Osasun Txartelaren Atalekoak, Farmazia Zuzendariordetzako Kudeaketa Administrazioaren Unitatekoak, IBPZNko Osasun Arloko Informazio Sistemen Zerbitzukoak, 604 farmazia-bulegotakoak, NFEOKoak eta elkargo horrek kontratatutako kanpoko enpresa batekoak.

II.3. ERREZETA ELEKTRONIKOAREN EZARPENA

Errezeta elektronikoa O-NOZen ezartzeko prozesua 2010ean hasi zen, Mendillorriko oinarriko osasun eskualdeko oinarriko osasun laguntzaren arloan.

Aurreko proiektuan behar ziren hobekuntzak sartu ondoren, oinarriko osasun laguntzaren esparru osorako zabalpena 2012ko urtarrilean hasi zen; dena den, herritarren koordainketaren arloko arau-aldaketek ezarpena geroratzea ekarri zuten.

2013an, oinarriko osasun laguntzaren esparruko ezarpenarekin jarraitu zen. 2014an, osasunaren esparru horretako gaixo guztiei errezeta elektronikoen bidez agintzeko betebeharra ezarri zen.

2015eko amaierako hilabeteetan eta 2016ko hasierakoetan, osasun espezializatuko zabalpena hasi zen, eta prozesu hori urtebeteko epean osatu zen.

Bestetik, 2015eko amaieran, halaber, errezeta elektronikoen elkarreragingarritasuneko proiektua hasi zen, gaixoei beren medikamentuak edo produktuak Estatuko edozein autonomia erkidegotan jaso ahal ditzaten, haiek non agindu zaizkion alde batera utzita. Prozesu hori autonomia erkidego guztietan amaituta dago jada.

2012-2015 aldian, farmazia-bulegoetan ematen diren medikamentuen eta produktuen fakturazioa ez zen modu elektronikoa egiten. 2015eko martxoan, proiektu pilotu bat hasi zen 12 botiketan, modu elektronikoa fakturazioa ahalbidetuko zuen sistema bat ezartzeko. Proiektu hori 2017ko irailean amaitu zen, eta hilabete horretan egin zen, lehenengo aldiz, fakturazio elektronikoa.


Bestalde, hurrengo ataletan zehazten ditugun une jakin batzuetan eta ia hondarreko moduan, medikamentuak eta produktuak paperezko errezetetan agintzen jarraitzen dira. Gauzak egiteko era hori desagertzen ari da, honako datu hauen bilakaerak erakusten duen bezala:

	2013	2014	2015	2016	2017
	Errezeta kopurua	Errezeta kopurua	Errezeta kopurua	Errezeta kopurua	Errezeta kopurua
Errezeta elektronikoa	6.126.041	8.738.066	9.191.978	9.716.793	9.935.345
Paperezko errezeta	3.881.447	1.233.493	1.028.015	761.878	311.883
Errezetak, guztira	10.007.488	9.971.559	10.219.993	10.478.671	10.247.228
	Bilgarri kopurua	Bilgarri kopurua	Bilgarri kopurua	Bilgarri kopurua	Bilgarri kopurua
Errezeta elektronikoa	7.036.222	10.071.122	10.543.907	11.146.820	11.417.816
Paperezko errezeta	3.895.053	1.239.887	1.033.476	765.309	313.364
Bilgarriak, guztira	10.931.275	11.311.009	11.577.383	11.912.129	11.731.180
	Gastua	Gastua	Gastua	Gastua	Gastua
Errezeta elektronikoa	80.504.956	116.612.799	124.354.728	133.570.401	139.478.694
Paperezko errezeta	49.418.731	18.448.300	15.617.684	11.481.144	4.790.803
Gastua, guztira	129.923.687	135.061.099	139.972.412	145.051.545	144.269.497

Ikusten denez, bai errezeta-kopurua, bai paperezko errezetei dagokien gastua nabarmen jaitsi dira aztertutako aldian.


Hurrengo orrialdean hiru irudiren bidez, preskripzio mota bakoitzak bai errezeten guztizko kopuruan, bai ontzien eta gastuaren guztizkoan egiten duen ehunekoa erakusten dugu.

Errezeta kopuruak guztizkoan egiten duen ehunekoaren bilakaera




Ikusten denez, 2017an errezeta elektronikoen guztizkoan egiten duten ehunekoa nabarmen handitzen joan da, eta ehuneko 97ra iritsi da, 2013ko ehuneko 61aren aldean.

Ontzi kopuruak guztizkoan egiten duen ehunekoaren bilakaera



Ontzi kopuruaren bilakaerak errezeta kopuruaren joera berari jarraitzen dio, eta 2013an ehuneko 63koa izatetik 2017an ehuneko 97koa izatera pasa da.

Gastuak guztizkoan egiten duen portzentajearen bilakaera



Era berean, 2013an errezeta elektronikoari lotutako gastua ehuneko 62koa zen, eta 2017an nabarmen handitzen da, ehuneko 97 izateraino. Horri dagokionez, adierazi beharra daukagu ezen gastu horrek ez dituela jasotzen araudiaren arabera aplikatu beharreko beherapen eta ordainketak, eta ez datorrela bat aurrekontuan kontabilizatutako gastuarekin, zeinaren zenbateko garbia erregistratzen baita.

II.4. INFORMAZIO SISTEMAK

Farmazia-prestazioaren kudeaketarako erabiltzen den elementu teknologiko nagusia LAMIA aplikazioa da, eta harekin batera hari euskarria ematen dioten sistema eta azpiegitura guztiak. LAMIA soluzio informatiko bat da (hartara, historia klinikoaren aplikazioen bitartez sartzen da, ATENEAREN bitartez oinarritzko osasun laguntzaren kasuan eta HCIREN bitartez laguntza espezializatuaren kasuan), moduluen bitartezkoa, honako honen kudeaketa integralerako: medikamentuak errezeta elektronikoaren bitartez agindu, eman, bisatu, administratu eta fakturatzeko.

NFEOk informaziorako eragile zentralizataile gisa jarduten du, herritarrei botiketari ematen zaizkien produktuen fakturazioa egiteko. Kudeaketa horretarako, NFEOrentzat garatutako tresna informatiko bat erabiltzen du, eta hartara farmazia-bulego bakoitzean dagoen softwarearen bitartez (bederatzi desberdin daude) sartzen da.

NFEOk farmazia-prestazioaren kudeaketa-prozesuan duen parte-hartzea 2002ko maiatzeko farmazia-bulegoen ituntzerako baldintzen esparru-akordioan jaso zen; akordio horretan, izan ere, aurreikusten zen hura automatikoki luzatzea urte naturalen arabera, aurrez, gutxienez ere urtea amaitu baino hiru hilabeteko gutxieneko aurrerapenarekin, amaiazteko eskatzen ez bazen. O-NOZek garaiz eta behar zen moduan eskatu zuen, 2017an zehar, hura amaiazteko, eta esparru-akordio berria berriki sinatu da eta loteslea da jada; halere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko zain dago.

Gainera, O-NOZen eta Nafarroako Zerga Ogasunaren beste sistema eta aplikazio informatiko batzuk erabiltzen dira: horiek guztiek I. eranskinen eskema batean erakusten dugun diseinu teknologiko konplexua osatzen dute. Errezeta elektronikoaren sistemak zuzen funtziona dezan, beharrezkoa da ukitutako azpisisistemek beren lanak egin ditzaten eta elkarren artean egoki integra daitezen.

II.5. APLIKATZEKO DEN OINARRIZKO ARAUDIA

Farmazia-prestazioaren kudeaketari aplikatzekoa zaion oinarrizko araudia ondoren zehazten duguna da:

- Azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea, farmazia laguntzari buruzkoa.
- Nafarroako Gobernuaren 2002ko maiatzaren 13ko Erabakia, zeinaren bidez farmazia-bulegoak ituntzeko baldintzen esparru-akordioa onesten baita.
- Nafarroako Gobernuaren 2017ko abenduaren 27ko Erabakia, zeinaren bidez farmazia-prestazioak hornitzeko gutxieneko baldintzak ezartzen baitira eta 2002ko esparru-akordioan ezarritakoak aldi baterako indarrean mantentzen baitira.
- Abenduaren 17ko 1718/2010 Errege Dekretua, errezeta medikoari eta dispentsatze-aginguei buruzkoa.
- 16/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 177/2014 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Osasun Sistema Nazionalako medikamentuen erreferentziako prezioen eta multzo homogeneoen sistema eta medikamentuen eta osasun-produktuen finantzaketaren eta prezioen arloko informazio-sistema jakin batzuk arautzen dituena.
- 1/2015 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 24koa, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Bermeei eta Erabilera Arrazionalari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

Aplikatzekoa den gainerako oinarrizko araudia txosten honekin batera doan 2. eranskinean zehaztu da.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Hona hemen gure lanaren helburuak:

- Farmazia-prestazioaren kudeaketan inplikaturako informazio-sistemak ebaluatzea, zehazte aldera ea sistema horietan dauden kontrolen eraginkortasun-graduak, bai eskuzko prozeduretan, bai aplikazio informatikoetan ere, arrazoizko konfiantza-maila bat ematen duen eta farmazia-prestazioaren kudeaketa-prozeduren betetze zuzena bermatzen duen, transakzioak egoki kontabilizatzen diren, eta akatsak eta irregulartasunak gertatzeko arriskua gutxitzen duen.
- Farmazia-prestazioan legedia betetzeari buruzko auditoretza bat egitea, horren bidez egiaztatzeko ea medikamentu edo/eta osasun produktueterako ezarritako prezioak —beherapenak eta ordainketak barne— eta herritarrek egiten duten ekarpenaren ehunekoak ere —eta, beraz, O-NOZek egiten duen gastua— aplikatzekoa den araudiaren arabera diren.
- Auditoretza finantzario bat egitea egiaztatze aldera 2017ko ekitaldiko farmazia-prestazioaren gasturako aurrekontu partidak prestatu ote diren, alderdi garrantzitsu guztiei dago-kienez, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Gure lanaren norainokoak 2013-2018 aldia hartzen du; halere, gastuaren bilakaeran ez da kontuan hartu 2018. urteari dagokiona, zeren eta Foru Komunitateko Administrazioaren urteko kontuak onetsi gabe bai baitaude.

Bestetik, honako informazio hau aztertu dugu:

- 2013-2017 aldirako farmazia-prestazioarekin lotutako gastu-partiden aurrekontu-betetzeak.
- Farmazia-prestazioari aplikatzekoa zaion araudia.
- O-NOZen prestazioaren kudeaketa-prozedura, horren barne direla ukitutako informazio-sistemen eta barne-kontrolako sistemen berrikuspena.

Horrek ekarri du 35 kontrol egitea: horietatik bost orokorrak dira eta 30, berriz, berariazkoak, farmazia-prestazioaren kudeaketa-prozedurarenak.

Kontrol orokorrak entitatearen teknologia informatikoaren azpiegitura orokorrarekin lotuta daude, eta ez dagozkio bereziki aplikazio jakin bati. Informazio-sistemei aplikatzen zaizkien politika eta prozedurak dira, haien funtzionamendu zuzena segurtatzen laguntzen dutenak, eta — egoki funtzionatzen badute— informazioaren segurtasunari, eskuragarritasunari, integritateari eta konfidentzialtasunari buruzko arazoizko bermea ematen dutenak, eta aplikazioen gaineko kontrolak zuzen funtziona dezatela ahalbidetzen dutenak.

Berariazko kontrolak xede gisa dute transakzioen eta datuen integritatea, zehaztasuna eta baliokotasuna segurtatzea farmazia-prestazioaren kudeaketa-operazioen prozesu osoan zehar (eskuzkoan zein automatizatuan). Arrazoiz segurtatu behar dute transakzio guztiak osorik, modu egokian eta une egokian hasi, baimendu, prozesatu eta erregistratzen direla, eta, halaber, aplikatzea den araudia betetzen dela.

- 27 proba substantibo egin ditugu, zeinek, besteak beste, honako hauek jasotzen baitituzte: 2017ko azaroko (11,54 milioi euro) eta 2018ko abuztuko (11,80 milioi euro) fakturen berrikuspena, bai eta 50 farmazia-bulegotako dispensazioei dagozkien 98 tiketean lagin bat ere, guztira 147 medikamenturi dagozkienak eta 2.941 euroko kopurua egiten zutenak; horietatik gaixoek 704 euro jarri zituzten guztira.

- Kontrol eta proba substantiboak egin ditugu datuak lehen aldiz modu masiboan aztertuz, txosten honen V.1 atalean aipatutako zehaztasunarekin; horrek aukera eman digu aurrez egingdako beste edozein lanetan baino ebidentzia nabarmen handiagoa lortzeko.

Gure lanaren norainokoak muga nabarmen bat izan du, zeren eta Nafarroako Zerga Ogasunak ez baitigu eman Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari igortzen zaion fitxategia, herritarren errenta-aitorpenaren laukitxo jakin batzuetako datuak biltzen dituena; informazio hori, ordea, oso garrantzitsua da, zeren eta aukera ematen baitio institutu horri ezagutzeko pertsona bakoitzak medikamentuen ordainketari egiten dion ekarpenaren portzentajea, eta, kenketa eginez, O-NOZI dagokion gastua.

Zehazki, fitxategi hori eskatu ondoren, Tributuen arloko Informazio Sistemen Zerbitzuko Proiektuak Bulkatzeko, Prozedurak Hobetzeko eta Segurtasunerako Atalak txosten baten bidez jakinarazi zigun ezin zela informazio hori laga, zeren eta Ganbera honen eskumenen esparrutik kanpo baitzegoen eta lagatzeak Datuak Babesteari buruzko Legearen printzipio batzuk urratzen baitzituen.

Egoera horren aurrean, Kontuen Ganberako Aholkularitza juridikoak txosten juridiko bat eman zuen, zeinean aztertzen baitzuen fitxategi horretara sartzeari emandako ukoa, eta honako hauek izan ziren konklusio nagusiak:

- Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 105.1.g) artikulua honako hau aipatzen du berariaz:

“.....1. Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuek edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu, salbu lagapenak helburu hauek baditu:

.....g) Elkarlana Comptos Ganberarekin, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren fiskalizazio eginkizunen barnean...”

- Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Legearen 10. artikulua hauxe ezartzen du:

“...1. Kontrol eta fiskalizazio eginkizunak betetzean, Kontuen Ganberak ahalmena izanen du honetarako:

a) Bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak dituen datu, txosten, agiri eta aurrekariak eskatzeko Nafarroako sektore publikoa osatzen duten erakunde eta entitate guztiei.

b) Bulego publikoetako dokumentazio guztia, liburuak, dirua eta baloreak, gelak, deposituak eta biltegiak eta beste edozein establezimendu oro har, ikuskatu eta egiaztatzea, bere eginkizunak gauzatzeko beharrezkotzat jotzen badu.

2. Kontuen Ganberak epeak ezarri ahalko ditu aurreko paragrafoan aipatzen den informazioa aurkezteko.

3. Kontuen Ganberak ezarritako epeak ez betetzea edo eskatutako informazioa ez igortzeak ekarri ahalko dute hark honako neurri hauek hartzea:

a) Lankidetzan jardutera behartuta daudenei zuzendutako idatzizko hertsatze-errekerimendua.

b) Kasuko nagusiei jakinaraztea.

c) Nafarroako Foru Diputazioari edo Gobernuari komunikatzea.

4. Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuari ezagutzera emanen dio laguntza eman beharrekoek laguntza eman ez izana.

- Besteak beste aurreko araudia kontuan hartuta, Nafarroako Zerga Ogasuna ez dago Ganbera honen fiskalizaziotik kanpo, ez ikuspuntu objektibotik, ez subjektibotik ere, zeren eta ez bai-kaude hirugarren jakin batzuei buruzko informazio-eskaera baten aurrean; izan ere, gure helburua da fiskalizazioaren xedea den prozesurako funtsezkoa den fitxategi jakin bat egiteko prozedura aztertzea, zeren eta horrek zuzenean eragiten baitu farmazia-prestazioa dela-eta O-NOZek egiten duen gastuaren zehaztapenean.

- Eskatutako informazioak datu pertsonalak edukitzearena ez da informazio hori eskuratzeko inongo muga, zeren eta eskuratze horretarako legezko gaikuntza Ganbera honen fiskalizazio-eginkizuna betearazteko baita.

Azken batean, uste dugu Nafarroako Zerga Ogasunak fiskalizazio honetan Kontuen Ganberari laguntza emateari emandako ukoa ez datorrela bat aplikatzekoa den araudiarekin.

Egitate horrek eragin du ezin iritzia ematea O-NOZen gastuari dagokion zenbatekoa arrazoizkoa izateari buruz, ez eta hura araudiari egokitzeari buruz ere.

IV. IRITZIA

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Farmazia-prestazioaren kudeaketaren erantzukizuna, araudiaren arabera, O-NOZi dagokio.

Aplikazio informatikoen kudeaketak eta haiei euskarria eman eta haiek bermatzen dituzten aktiboek farmazia-prestazioaren kudeaketa egokiari eusten diote eta hura bermatzen dute, IBPZNri dagokionez.

Nafarroako Zerga Ogasunak urtero Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari datu jakin batzuk igorri behar dizkio Nafarroako herritarren errenta-aitorpenari buruz, institutu horrek, informazio gehigarriarekin batera, pertsona bakoitzaren ekarpenaren portzentajeak lor ditzan, datu horiek zuzenak direla bermatuz.

O-NOZek bermatu behar du farmazia-prestazioaren kudeaketa-jarduerak, haiei lotutako aurrekontu-eragiketak eta urteko kontuetan islatutako informazioa bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezarri behar ditu iruzurrez nahiz akats baten ondorioz sortutako oker materialik gabeko urteko kontuak prestatu eta aurkeztu ahal izateko.

Horrenbestez, farmazia-prestazioaren kudeaketa-prozesuko eta informazio sistemetak kontrolen diseinua, ezarpena eta funtzionamendu zuzena O-NOZi, IBPZNri eta Nafarroako Zerga Ogasunari dagokien erantzukizuna da.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da farmazia-prestazioa dela-eta egin dugun fiskalizazioan oinarritutako iritzi bat ematea, honako alderdi hauei dagokienez: barne-kontrolako sistema, operazioen legezko-tasuna eta kasuko aurrekontu-partidak.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera, eta, zehazkiago, ISSAI-ES 200, 400 eta 500 arauen arabera, zeinak fiskalizazio finantzarioei buruzkoak baitira, eta, zehazkiago, betetzeari buruzko partida berariazko bat berrikusteari eta informazioaren teknologien auditoriari buruzkoak. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta auditoretzaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, halako moduz non lortuko baitugu farmazia-prestazioaren kudeaketan erabilitako prozeduren, dauden arriskuen eta arrisku horiek arintzeko ezarritako kontrolen (automatikoak zein eskuzkoak) ezagutza egokia, bai eta arrazoizko segurtasun bat izatea ere berrikusitako aurrekontuko partidetan akats materialik ez egoteari buruz, eta fiskalizatutako ekitaldian egindako jarduerak zein aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan islatutako informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateari buruz.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula honakoei buruzko auditoretza-ebidentzia bat lortzeko: kudeaketan aplikatutako prozedurei buruzkoa, aztertutako aurrekontu-partidetan ageri diren zenbatekoei eta informazioari buruzkoa eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldietan zehar betetzeari buruzkoa.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, bai akats hori iruzurraren nahiz oker baten ondoriozkoa denean, bai legezko-tasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezko-tasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizko-tasuna, bai eta aztertutako aurrekontu-partiden aurkezpena ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du legezko-tasuna betetzeari buruzko gure iritzia emateko eta barne-kontrolari buruzko auditoriari buruzko gure konklusioa ateratzeko.

Hala eta guztiz ere, "Iritzi finantzarioari buruzko abstentzioaren oinarria" paragrafoan deskribatutako egitateak direla eta, ezin izan dugu auditoretza-ebidentziarik lortu, oinarri nahikoa eta egokia ematen duenik auditoretza finantzarioko iritzia emateko.

IV.1 BARNE KONTROLARI BURUZKO KONKLUSIOA

V.1 ataleko xehakatzearen arabera, kudeaketaren arlo eta azpiprozesuen 35 kontrol berrikusi ziren, eta 27 proba substantibo egin ziren. Honako hauek dira aztertu diren kontrolen betetzeari buruzko gradua eta egindako proba substantiboen emaitza:

Eraginkorrak	Eraginkorra, gomendioekin	Ez- eraginkorrak	Kontrolak, guztira
Kontrol orokorrak	2	3	5
Berariazko kontrolak	16	3	30
Guztira	18	6	35

Eraitza egokia	Eraitza egokia, gomendioekin	Eraitza desegokia	Proba substanti- boak, guztira
Proba substantiboak	19	4	27

Aurreko taulatik ateratzen diren emaitzetatik nabarmentzen dugu ezen ATENEA, HCI eta LAMIA aplikazioetako erabiltzaileen alden, aldaketen eta baje kudeaketa-prozesuaren gaineko kontrola ez dela eraginkorra; izan ere, egiaztatu dugu, txosten honen V. atalean adierazitako beste alderdi batzuen artean, ezen dagoen prozedura ez dagoela gaurkoturik; halere, gaur egun, bi proiektu badaude gaurkotze hori aurrera eramateko.

Gure iritziz, aurreko paragrafoan aipatutakoa kenduta, ondoriozta daiteke farmazia-prestazioaren kudeaketa-prozeduretan eta hari eusten dioten informazio-sistemetan dagoen kontrol-mailak arrazoizko konfiantza-maila bat ematen dutela honako hauek bermatzeko: haien betetze zuzena, egindako transakzioen kontabilizatze egokia, eta emandako informazioaren baliozko-tasuna, integritatea, zehaztasuna, konfidentzialtasuna eta eskuragarritasuna.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Nafarroako Zerga Ogasunak ez digu eman Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari, herritar bakoitzaren ekarpenaren ehuneko lor dezan, urtero igortzen dion fitxategia; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu ehuneko horiek bat ote datozen araudian ezarritakoekin.

Legezko-tasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritziz, "Betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin" paragrafoan deskribatutako mugengatik ez bada, O-NOZek NFEOr ordaindutako fakturen (medikamentuen prezioak, beherapenak eta ordainketak) zenbatekoekin lotutako gainerako alderdiak bat datoz aplikatzeko den araudiarekin.

Bestelako gaiak edo oharpenak, legezko-tasuna betetzeari buruzko iritzian eraginik ez dutenak

177/2014 Errege Dekretuak errezetak eman eta fakturatzeko erabili beharreko erreferentziako prezioen sistema ezartzen du; sistema hori urtero gaurkotzen da Nomenclator izeneko fitxategien multzoan.

NFEOk emandako informazioaren arabera, farmaziek ez dituzte fitxategi horretako prezioak erabiltzen gaixoari fakturatzeko; izan ere, prezio horiek beste datu-base propio batzuetatik edo Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiarena den beste datu base batetik lortzen dituzte. Prezio horien gaurkotze egokia farmazia bakoitzaren softwarearen arabera da, eta are horietako bakoitzarena ere, baina ez dago kontrolik aldaketa horiek egin diren ala ez diren egin jakiteko.

Egiaztatu dugu ezen 2018an, farmazietako softwareek dispensazioak direla-eta LAMIARA bidaltzen dituzten datuen arabera, 102.668 kasutan farmaziek araudian ezarritakoaz beste prezio batean eman izan dituztela produktuak. Informazio horren arabera, 589 farmaziek emandako 2.167 produkturi dagozkien 48.740 kasutan, gaixoei behar zena baino 16.511 euro gehiago eta 2.006 euro gutxiago ordaindu izan dituzte; horrek 14.505 euroko eragin garbia du farmazien alde. Gainerako kasuek ez lukete eraginik izanen gaixoak ordaindutako prezioan, honako arrazoi hauek direla eta: ekarpenik ez duten medikamentuak dira, edo ehuneko 100 finantzatzen direnak;

gaixoak prezioaren ehuneko 100 ordaindu beharreko medikamentuak dira, eta prezio desberdinetan saldu ahal dira, araudian ezarritako muga batekin; ekarpen murriztuko medikamentuak dira, zeinetan gaixoak 4,24 euroko gehieneko muga ordaintzen baitu, prezioa zein den ere; edo prezioa sartzekoan hamarrenekotan akatsen bat egin den medikamentuak dira.

Farmaziek gaixoari fakturatzekoan erabilitako prezioak Nomenclator fitxategitik ez lortzeak, eta horretan egindako akatsek, aurreko paragrafoan aipatu dugun bezala, ez dute eraginik O-NOZen gastuan, eta diru-kopuruak ez du eragin aipagarririk 2018an egindako dispentsazioen guztizkoan (10,39 milioi). Gure ustez, ez da arrazoizkoa gaixoei medikamentu berarengatik zerbateko desberdinak ordaintzea, araudiak ezarritakoez bestelakoak, nahiz eta egoera hori 2018ko dispentsazioen ehuneko batean baizik ez den gertatu.

IV.3. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritzi finantzarioari buruzko abstentzioaren oinarria

Jada aipatu dugun bezala, ez dugu sarbiderik izan Nafarroako Zerga Ogasunak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari bidaltzen dion fitxategira, eta horrek eragotzi digu egiaztatzea zuzenak ote diren herritarrek medikamentuen eta osasun-produktuen ordainketari egiten dioten ekarpenaren ehunekoak, eta, horrenbestez, O-NOZen gastua, farmazia-prestazioari lotutakoa, zuzena ote den; gastu hori 138,75 milioi eurokoa izan da 2017an.

Iritzi finantzarioari buruzko abstentzioa

“Iritzi finantzarioari buruzko abstentzioaren oinarria” paragrafoan deskribatutako egitatearen eragin oso nabarmena dela eta, ezin izan dugu auditoretzaren ebidentziarik lortu, auditoretzaren iritzi bat emateko oinarri nahikoa eta egokia ematen digunik. Horrenbestez, ez dugu iritzi finantzarioari emanen farmazia-prestazioarekin lotutako aurrekontu-partidei buruz.

V. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, bai eta antzeman diren hutsuneak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

V.1. FARMAZIA PRESTAZIOAREN KUDEAKETARAKO PROZEDURA

Farmazia-prestazioaren kudeaketa-prozedura hainbat fasetan banatuta dago, eta fase horiek desberdinak dira, errezeta hori elektronikoki edo paperean agindua izatearen arabera.

Errezeta gehienak elektronikoki direnez, 3. eranskinean preskripzio-mota horretarako faseak jaso ditugu; honako hauek dira, funtsean: medikamentuei buruzko datuak eta herritarren ekarpenaren ehunekoak kargatzea; preskripzioa; medikamentuaren bisatua, behar denean; dispentsazioa; fakturazioa; kontabilizatzea; ordainketa; erkatzak; detektatutako desadostasunen tratamendua, eta desadostasun horien likidazioa geroztik egitekoak diren fakturretan.

Prozeduraren deskribapena

Ondoren, labur deskribatuko dugu, prozedura hau banatuta dagoen fase bakoitza, paperez egindako errezetei dagokiena barne dela:

a) Medikamentuei buruzko datuak sistematan kargatzea

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak hileroko gaurkotzen ditu agindu daitezkeen medikamentuak (finantzaketa emanen zaiena eta emanen ez zaiena), haien prezioak eta bestelako ezaugarri batzuk; besteak beste, bisatuaren baldintza (alderdi hori txosten honen 20. orrialdean zehaztu dugu). Informazio hori autonomia erkidegoei eta farmazialarien elkargo ofizialei igortzen zaie, beren sistemetara sar dezaten, Nomenclator izeneko fitxategien multzo batean.

Nafarroaren kasuan, farmazialariaren profila duen pertsona bat, Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuko, da Nomenclator fitxategia teknikoki egokitzearen ardura duena, hura

hainbat prozeduraren bitartez LAMIARA sartzeko. Aldaketa horiek batzuetan automatikoak dira, eta beste batzuetan, berriz, eskuzkoak.

b) Herritar bakoitzak egin beharreko ekarpenaren ehunekoari buruzko datuak kargatzea

Urte bakoitzeko urrian, autonomia erkidegoetako tributu-administrazioek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari informazioa igortzen diote herritarren erreta aitortpenaren laukitxo jakin batzuei buruz.

Informazio horri pertsona bakoitzari buruzkoa gehituz —balizko ezgaitasun bati, adinari eta lan-egoerari dagokiona— Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ekarpenaren ehuneko banakatu lortzen du. Gaurkotze hori abenduko lehen asterako egoten da prest, eta une horretan datu horiek institutu horretatik osasunaren arloko ministerio eskudunari transmititzen zaizkio, eta horrek autonomia erkidegoei bidaltzen die, beren sistemetan sar dezaten. Zehazki, Nafarroan, LAKORA aplikazioa da portzentaje horiek jasotzen dituen.

Urteko gaurkotze orokor horretaz gainera, egunero herritar jakin batzuentzako portzentajeak berriz kalkulatu dira Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak erretiroei, onuraduna izatetik titularrak izatera iragan direnei, lan-egoerari, baliaezintasunari eta abarrei buruz emandako informazioaren arabera, eta aplikazio horretan sartzen dira.

Aldaketa horiek egunero egiten dira zati bat automatikoa eta bestea eskuzkoa duen prozesu batean. Eskuzko zatia O-NOZeko langileek egiten dute, eta zenbait aldaketatan zentratzen da; besteak beste honako arrazoi hauei zor zaizkien aldaketetan: onuradunaren heriotzagatiko sistemako balizko bajak edo aseguratuko eskubidea galtzea; errenta bermatuta edo bestelako prestazioak jasotzea; beste autonomia erkidego batzuetarako eskualdatzeak; onuraduna izatetik titularrak izatera pasatzea, edo titulartasuna aldatzea.

LAKORAK ekarpen-portzentajeei buruzko datuak igortzen dizkie informazio hori behar duten sistema kliniko guztiei: LAMIA, ATENEA, HCI eta abar.

c) Preskripzioa

Jada aipatu dugun bezalaxe, farmazia-prestaziotik datorren gastu ia guztia errezeta elektronikoren bidez sortzen da.

Gaixoa kontsultara joaten da, dela oinarrizko osasun laguntzakora dela laguntza espezializatukora, eta langile fakultatiboek zein tratamendu behar duen erabaki eta preskripzio hori sinatzen dute; une horretatik aurrera, medikamentua edo produktua edozein farmazia-bulegotan eman daiteke, Nafarroan zein Estatuko gainerako tokietan, autonomia erkidegoen artean dagoen elkarrengarritasunari esker.

Gaixoak kronikoki hartu behar dituen medikamentuen preskripzioak behin bakarrik egiten dira, eta urtero berritu behar dira.

Langile fakultatiboek tratamendu-orria inprimatu behar dute, non aipatuko baita zein den agindutako medikamentu edo produktua, nola eman behar den eta preskripzioak zenbat iraun behar duen.

Errezeta elektronikoz gainera, paperezko errezeten bidez ere agindu ohi dira medikamentuak. Prozedura hori honako kasu jakin hauetan erabiltzen da:

- O-NOZetik datozen langile fakultatiboak, erretiratu direnak², paperezko taloitegiak eduki eta horietan medikamentuak agindu ahal dituztenak, beren buruarentzat nahiz beraiekin bizi direnentzat.
- Jardunean (edo kudeaketa-karguak betetzen) dauden langile fakultatiboak, xede berarekin taloitegiak eskatzen dituztenak.

² 1261/2007 Ebazpenak aukera hori jasotzen du, baldin eta pertsona hori lanbidean jarduteko gaituta badago; horretarako, urtero, Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuan bere gaitasun-ziurtagiria aurkeztu beharko du, Sendagileen Elkargo Ofizialak egina.

- Gaixoei ethez etxe egindako bisitak.
- Adineko pertsonentzako egoitzetako langile fakultatiboak.
- Maisu formulak eta estraktuak.
- Alergiaren kontrako txertoak.
- Gaixoak NAIKP kodea eduki ez baiona NOTa edukitzea (edo ez, kasua bada).
- Mutualitateetatik (MUFACE, ISFAS eta MUGEJU) datozen gaixoak, ezarrita dauden ekarpen-ehuneko handiekin.
 - Oraindik ere kode nazionalik ez duten medikamentu batzuen preskripzioa.
 - Medikamentu edo produktuen xedea denean lan-istripu batetik edo gaixotasun profesional batetik datorren kontingentzia bat estaltzea.
- Osasun kanpaina.

d) Bisatua

Medikamentu batzuk badaude zeinak, langile fakultatiboek agindu ondoren, bisatu-fase batetik pasatu behar baitira. Honako bisatu mota hauek badaude:

- Bisatu klinikoa

Beren kostu handia edo indikazio oso zehatzak edukitzeagatik osasun kontrol berezi bat behar duten eta aurrez nahitaez agindu beharrekoak diren medikamentuei dagokie. Ezaugarri hori hileroz zehazten da Nomenclator fitxategian.

Kasu horietan, bisatuaren eskaera automatikoki sortzen da sisteman, eta eskaera hori baimentzeaz arduratzen diren langileek eskaera ori baimentzen ez duten arte, medikamentua ezin da eman.

- Bisatu administratiboa

Nafarroan aplikatzen da, patologia batzuetarako edo arrisku-talde batzuetarako egokiak diren medikamentu jakin batzuk finantzatzeko, baldin eta ministerioak zehaztutako baldintza jakin batzuk betetzen badira.

Baldin eta langile fakultatiboek uste badute baldintza horiek betetzen direla, berariaz adierazten dute hori beren preskripzioan, bisatua eskatuz. Aurreko kasuan ez bezala, medikamentu horiek beti dispensatu ahalko dituzte farmazia-bulegoek, alde batera utzita baimena eman den ala ez den eman; baimena eman ez bada, gaixoak medikamentuaren ehuneko ehun ordaindu beharko du.

Bisatua baimentzeko prozedura, zeina 24 orduko epean burutzen baita, bat bera da: Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuko berriazko prestakuntza duten administrari laguntzailearen kategoriako zazpi pertsona (erizaintzako prestakuntza duten bi pertsonaren laguntzarekin) bisatu-eskaerak berrikustez arduratzen dira, gaixoaren historia klinikora sartuz, informazioa jasotzeko eta bisatuaren baimena edo ukoa proposatzeko.

Bisatua baimentzeko proposamenak Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuko ikuskatzaile-profileko bost fakultatibok sinatzen dituzte.

Bisatuaren eskaera ukatzea proposatzen bada edo horri buruz informazio gehiago eskatzen bada, arrazoia aipatu beharko da eta eskatzaileari jakinarazi; azken horrek abisu bat jasoko du historia klinikoaren aplikazioan berriz sartu behar duenean; pertsona horrek informazio gehiago edo datu batzuk gehitu ahalko dizkio berrikusleari, bere erabakia har dezan. Kasu horiek guztiak ikuskatzaile-profila duten langileek berrikusten dituzte.

- Zurgatzaileen bisatua.

Produktu horiek bisatzeko aurrekoaz beste prozedura bat badago. Kasu horretan, Farmazia Zuzendariordetzako Kudeaketa Administratiboaren Unitatetik izapidetzen dira, zeren eta histori-

koki lehiaketa bat egon izan baita unitate horrek kudeatzen duen erosketa egiteko, eta lehiaketa hori egiteari utzi zaion arren, zerbitzu horrek berak jarraitu du gai hori kudeatzen.

Bisatua izapidetzeaz arduratzen diren langileak administrari laguntzailearen kategoriakoak dira (hamar langile); dena den, kasu horretan, emandako baimena emanen lukeen ikuskatzailearen figurarik ez dago.

e) Dispentsazioa

Behin kasuko medikamentua edo produktua aginduta, gaixoa farmaziara joanen da hura eman diezaioten.

Farmaziako langileek gaixo batek pendiente dituen medikamentuetara sartu ahalko dute osasun txartela irakurriz edo eskuz NAIKP (Nafarroako identifikazio-kode pertsonala) sartuz; azken aukera horixe da gehien erabiltzen dena.

Gaixoak behar duen medikamentua identifikatuta, farmaziako langileek hura emanen dute, aurrez haren kupoia ebakiz eta orri batean gehituz. Horri dagokionez, esan beharra daukagu ezen 2019ko otsailetik Medikamentuak Egiartzatzeko Espainiako Sistema sartu dela indarrean, eta horrek berekin dakarrela medikamentuen bilgarri bakoitza identifikatzeko eta zalantzarik gabe trazatzeko prozedura bat ezartzea.

Nahitaezkoa da gaixoari agindutako produktua ematea, baina haren ordeztu beste bat eman ahalko da gaixoak eskatzen badu, edo hornidurarik ez badago, edo larrialdi kasu batean; dena den, ezin izanen da eman kostu handiagoa duen beste bat, eta beti adierazi beharko da zein izan den ordeztuaren arrazoia.

Une honetara arte deskribatutako prozedura bat dator errezeta elektronikorekin; baldin eta gaixoa farmaziara paperezko errezeta batekin joaten bada, farmazian entregatu beharko du errezeta hori, eta medikamentua/produktua eskuratuko zaio. Baldin eta errezetak ez badu gaixoaren ekarpenaren ehunekoari buruzko informaziorik, araudiak ezartzen du ehuneko 50ekoa aplikatu beharko zaiola. Eskuz egindako errezetetatik datozen dispentsazioei buruzko informazioa ez da LAMIAn erregistratzen; halere, aurreikusita dago datu horiek aplikazio horretan sartzeari esparruakordio berria argitara ematen denetik gehienez ere 12 hileko epean. Hortik aurrera, prozesua errezeta elektronikorekin kasuan dagoen prozesu bera izanen da.

f) Fakturazioa

Hilaren amaieran, farmaziek eskuz edo automatikoki fakturaren laburpen bat beteko dute; laburpen horretan, errezeta-kopurua eta fakturazio-multzo bakoitzarentzako kupoia aipatuko dira (errezeta elektronikoa, paperezko errezetak eta, horien barruan, mutuentsako errezetak, txertoetarako errezetak eta abar).

Kanpoko enpresa da farmazia bakoitzaren paperezko errezetak (gastua farmazia-bulegoek hartzen dute beren gain) eta kupoi-orriak (gastua O-NOZek hartzen du bere gain) digitalizatzeko ardura hartzen duena. Gero, enpresa horrek fakturari dagokionaren hurrengo hilabetearen 10erako artxibo bat egiten du honako hauei buruzko informazioarekin: fakturaren guztizko zenbatekoa, zerbitzarian jasota dauden Nomenclator fitxategiko prezioen arabera errezeta elektronikoko dispentsazioak, dagoen araudia aplikatuz egin beharreko deskontuak, eta farmazia jakin batzuei egin beharreko deskontuak, adierazle zuzentzaile bat aplikatuz³.

g) Kontabilizatzea eta ordainketa

Igorritako artxiboa NFEOri igortzen dio kanpoko enpresak, eta horrek Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuari transmititzen dio. Une honetan oraindik ere ez dago errezeten paperezko oinarri informatikorik, baina haren zenbatekoa tarte jakin baten barruan badago (300.000-400.000 euro), ontzat eman, kontabilizatu eta NFEOri ordaintzen zaio.

³ “Zalantzarik gabeko bideragarritasun ekonomikoa” duten farmazia batzuk badaude, ezarritako fakturazio-zenbateko jakin batera iristen ez direlako. Nafarroan, farmaziaren arloko antolamendu berezia duenez, gisa horretako 70 farmazia badaude, Estatuaren gainerakoan baino gehiago, proportzioz.

Oroitidazki hau idazteko egunean, "konturako faktura" horiek ez ditu NFEOk erregistratzen Estatuaren Administrazio orokorraren faktura elektronikoen erregistroan (FACE), O-NOZek prozesu hori eskuz egiten duelako; horri dagokionez, aurreikusita dago NFEOrekiko harremanak erregulatzeko duen esparru-akordio berri batek betebeharrak hori jasotzea.

h) Alderatzeak

Hilabete bakoitzaren 15ean, NFEOk O-NOZi kanpoko enpresak egindako beste fitxategi bat igortzen dio, kupoen digitalizazioarekin, paperezko errezeten informazio osoarekin eta kudeaketa-arloko beste datu batzuekin (preskripzioa egiten duten fakultatiboak, gaixoak eta abar).

Fitxategi horren zati bat erabiltzen da LAMIAko fakturen-alderatzeen moduluan eta Tableau aplikazioan egiaztapen jakin batzuk egiteko; horren bidez, farmazia-prestazioarekin lotutako informazioaren *data warehouse*⁴ bat aztertu ahal da.

Paperezko errezeta guztiak Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuari igortzen zaizkio. Horietatik, maisu-formulei, alergiaren kontrako txertoei eta prezintu-kupoirik gabeko beste medikamentu batzuei dagozkienak, beren prezioak Nomenclator fitxategian ezarrita ez badituzte, erabat berrikusiko dira.

i) Lortutako desadostasunen tratamendua

Aurreko alderatzeak hiru hilabeteko epean egiten dira gutxi gorabehera. Kasuko desadostasunak lortuta, O-NOZen eta NFEOren arteko baterako bilera bat egiten da, eta hartan desadostasun guztiak banaka berrikusten dira.

Farmazia bakoitzari bere desadostasunak komunikatzen zaizkio, eta, kasua bada, 15 eguneko epea ematen zaie haiek zuzen ditzaten. Epe hori iraganik, aldeak berriz biltzen dira, eta behin betiko erabaki bat hartzen da hasiera batean detektatutako desadostasunei buruz.

Hilabete jakin bateko fakturaren zenbatekoaren aldaketa hurrengo hiru hilabeteetako baten fakturan sartzen da.

Prozeduraren analisia

Farmazia-prestazioaren kudeaketaren prozeduraren diseinua aztertu dugu, bai eta LAMIA konfigurazioa eta erabiltzen diren aplikazio desberdinen arteko interfazeak ere, dauden arriskuak identifikatu eta ezarritako kontrolak aztertzeke, haiek arintze aldera; horretarako, 35 kontrolen analisia egiten da eta 27 proba substantibo egiten dira.

Datuen analisi masiboak egin ditugu baliozkotzeak egiteko; izan ere, baliozkotze horiek aukera emanen digute kudeaketa-prozesuan ezarritako kontrolen funtzionamendua egiaztatzeke; analizatu ditugun erregistroak hurrengo taula honetan aipatzen direnak dira:

	2013-2018*, guztizkoa	2018
Agindutakoak	15.227.446	3.747.158
Errezetak	32.321.273	12.962.906
Bisatuak	350.720	83.548
Emateak (elkarreragingarritasunekoak kanpo utzita)	55.933.576	10.447.111
Gaixoen preskripzioetara farmazietatik dauden irispideak	42.031.546	7.992.919
Prezioen historikoa	4.998.672	879.594
	Aldaketen historikoa	Egungo datuak
Norbanakoaren osasun txartela	2.075.404	785.444

* Kontuan hartu beharra dago ezen errezeta elektronikoa 2017tik aurrera hasi zela guztiz funtzionatzen.

⁴ Farmazia-prestazioarekin lotutako informazioaren biltegia.

Gainera, 2017ko azaroko eta 2018ko abuztuko fakturak berrikusi ditugu; honako hauek dira datu nagusiak:

	2017ko azaroko faktura	2018ko abuztuko faktura
Fakturaren zenbatekoa	12.040.607	12.250.588
Beherapenak eta ordainketak	-478.441	-438.693
Hiru hilabete lehenagoko fakturaren desadostasuna	-22.786	-10.584
Zenbateko likidoa (aurrekontu-gastua)	11.539.380	11.801.311
Geroko fakturretan kobratzekoak diren desadostasunak	-13.903	-11.906
Errezetak, guztira:	850.250	852.383
Errezeta elektronikoak	830.816	833.286
Paperezko errezetak	19.434	19.097
Bilgarriak, guztira	973.344	978.425
<i>Errezeta elektronikoetako bilgarriak</i>	953.812	959.262
<i>Paperezko errezetetako bilgarriak</i>	19.532	19.163
Analizatutako erregistroak, guztira		
Fakturazioa	972.767	978.319
Nomenclator	64.292	66.176

Honako hauek dira kontrolen berrikuspenaren eta proba substantiboak egitearen emaitzak:

	Berrikusitako kontrolak				Egindako proba substantiboak			
	Eraginkorra	Eraginkorra, gomendioekin	Ez-eraginkorra	Guztira	Emaitza egokia	Emaitza egokia, gomendioekin	Emaitza desegokia	Guztira
LAMIA, ATENEA eta HCI	2	5	5	12	-	-	-	-
Datuak kargatu Nomenclator fitxategian	2	-	-	2	1	1	-	2
Gaixoen ekarpena kargatu	-	-	-	-	4	-	1	5
Preskripzioa	7	-	6	13	-	1	1	2
Bisatua	4	1	-	5	1	-	1	1
Dispentsazioa	3	-	-	3	3	2	2	7
Fakturazioa	-	-	-	-	6	-	-	6
Alderatzeak	-	-	-	-	4	-	-	4
Guztira	18	6	11	35	19	4	4	27

Ikusten denez, egindako kontrolen ehuneko 69 eraginkorrak dira; halere, horietatik gainerako ehuneko 25ean egokitzat jo dugu gomendio batzuk egitea haien eraginkortasuna hobetzeko; gainerako ehuneko 31, berriz, ez dira eraginkorrak. Proba substantiboen kasuan, emaitza positiboa izan zen kasuen ehuneko 85ean, eta horietatik ehuneko 17an gomendioak egin dira; gainerako ehuneko 15aren emaitza negatiboa da.

Emaitza horiek kontuan hartuta, esan dezakegu ezen, oro har, barne kontrola arrazoizkoa eta egokia dela; halere, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu, zeinak funtsean lotuta baitaude eraginkorrak ez diren kontrolekin eta emaitza desegokia eman duten probekin:

ATENEA, HCI eta LAMIA

- Erabiltzaileen altak, aldaketak eta bajak ATENEA, HCI eta LAMIA aplikazioetan kudeatzeko prozedura ez dago gaurkoturik. Horri dagokionez, aipatu beharra daukagu ezen sarbide horien kudeaketa ATENEA eta HCI aplikazioen arduradunei dagokiela, zeren eta erabiltzaileak haien bitartez sartzen baitira LAMIAN.

- LAMIAk ez du erabiltzaile administratzaileen auditoretzako “log”⁵ delakoa erregistratzen; hori dela eta, ez da jasota gelditzen zein administratzailek sortu edo aldatu duen erabiltzaile bakoitza, ez eta eragiketa horiek noiz egiten diren ere.
- LAMIA erabiliz egiten diren zabaltzeak ezarritako prozedura jarraitzen dute; halere, eskuz egiten direnez, LAMIAko produkzio-urrats guztiak ez dira erregistraturik geratzen.
- LAMIARI buruzko eskaera guztietan, kasuko langileek egindako proben erregistroa geratzen da; probak direla-eta hartutako laginean, aldaketen historikoan ez da beti zuzen gaurkotzen proben exekuzioaren emaitza, eta hori dela-eta batzuetan desberdintasunak daude aldaketen historikoaren eta jarraipen-orriaren artean.
- ATENEA eta HCI aplikazioen pasahitzak —LAMIArako sarbidea ematen duten aplikazioak dira— lau karakter berdinekoak izan daitezke, eta ez dute konplexutasun-baldintzarik eskatzen; alabaina, haietara sartzeko kasuko domeinuaren alde aurreko baliozkotzea behar da.
- Bai aurreprodukioko ingurunerako bai produkzioko ingurunerako zabaltzeak eskuz egiten dira; prozedurako urratsak bete eta erregistratuta geratzen dira, eta funtzioen segregazio egokia bermatzen da. Hala eta guztiz ere, egiaztatu dugu ezen garapenak egiten dituzten hiru erabiltzaile badaudela, produkzioko ingurunera sarbidea dutenak, euskarri-eginkizunak betetzeko eta zabaltzeak baliozkotzeko.
- Egiaztatu dugu ezen, sistema desberdinen “log”en kontrol exhaustiboa duten arren, “log” horiek ostatatuta dauden sareko karpetetarako sarbidearen erregistroa aktibatu gabe zegoela; hori dela eta, ezin ziren haiek aldatu hori jasota geratu gabe. Horri buruz, esan beharra daukagu ezen “log” hori aktibatzeraz jo dela.

Nomenclator fitxategiko datuak O-NOZen informazio-sistemetan sartzea

- Prozesu hori pertsona bakar batek egiten du, eta lan hori egiteko ezarrita dagoen prozedura zaharkiturik dago.
- Egiaztatu dugu ezen prezioei buruzko eta bisatu-baldintzari buruzko datu guztiak eskuz aldatu ahal direla. Dena den, azken aldaketa egin zuen erabiltzailea eta azken gaurkotzearen data erregistratzen diren arren, operazio horiek ez dute arrasto informatikorik uzten, berrikuste historikoa bideratzen duenik.

Preskripzioa

- Erizaintzako langileek medikamenturen baten preskripzioa proposatu ahal diete langile fakultatiboek, baina azken horiek sinatu beharko dute beti, eraginkorra izan dadin. Egiaztatu dugu ezen gaixo baten tratamendu-orrian sinatzeko gisa ageri den medikazioa, norik proposatu duen alde batera utzita, automatikoki sinatzen dutela langile fakultatiboek aplikaziotik eta gaixoaren tratamendu-orritik ateratzean.
- LAMIAk gaixoen tratamenduaren kalkulu egoki bat egiten du, baina kasu batzuetan bilgarrien kopurua ez dago mugaturik, eta sistemak kopuru handi bat agintzen ari izateari buruzko alerta deitzen duen arren, ez du eragozten preskripzio hori egin dadin.
- Langile fakultatiboek medikamentu/produktu bat agintzerakoan inprimatu behar duten tratamendu-orriak ez du informaziorik biltzen haien kostuari buruz, ez eta lehenengo dispentsaziorako epeei buruz ere.
- Erretiroa hartuta dauden baina paperezko errezetan bidez sendagaiak agintzeko taloitegiak dituzten langile fakultatiboek gaikuntza profesionalaren ziurtagiriak ez daude jasota, araudiak kontrakoa ezartzen duen arren. Gainera, ez da kontrolatzen ea langile horiek sendagaiak agin-

⁵ “Log” deitzen zaio artxibo batean dato base batean sekuentzialki grabatzeari prozesu partikular batean (aplikazioa, sare informatiko baten jardura eta abar) gertatutako guztiak (gertakariak edo egintzak). Horrela, sistemaren jokabidearen ebidentzia bat eratzen da.

tzen dizkieten gaixoak, beraiek diren hala beraiekin bizi diren senideak diren, horietatik baitira araudiak jasotzen dituen aukera bakarrak.

- Egiaztatu dugu ezen, eskuz egindako paperezko 18 errezetatan (aztertutako errezeta guztien ehuneko bat), gaixoaren ekarpen-portzentajea ez datorrela bat LAMIAn ageri denarekin; gaixoak 14 errezetatan zegokiona baino gehiago ordaindu du; gainerako lauetan, berriz, zegokiona baino gutxiago.

- Eskuz egindako paperezko errezetatik datozen dispentsazioak ez daude LAMIAn jasota, ez eta gaixoaren historia klinikoan ere, eta ez dira konputatzen koordaintetarako ezarrita dagoen mugarako, gaixoak Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzura jotzen ez badu, kasuko zenbatekoa kontuan har dadin.

- Paperezko errezetak soilik berrikusten dira prozeduraren deskribapenean aipatutako kasuetan, eta egindako kontrolak ez dira jasota uzten.

Bisatua

- Bisaturen fasean, preskripzioa egiten duten langile fakultatiboek ez dituzte kasu guztien eskaerak justifikatzeko txosten klinikoak, LAMIAn eskuliburuan hala ezarrita dagoen arren; horrek berekin ekartzen du administrazioko langileek kasu horietan gaixoen historia klinikoak kontsultatu behar izatea.

Dispentsazioa

- Araudiak berariaz jasotzen duen arren farmazia-bulegoek medikamentu bat dispentsatzeko gaixo bakoitzaren osasun txartelaren barra-kodea irakurri behar dutela, egiaztatu dugu ezen, aztertutako aldirian, kasu gehienetan, datuetara sartu zela NAIKPa eskuz sartuz, ondoren erakusten dugun bezala.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Eskuz sartzea, NAIKPa sartuz (%)	72	79	84	88	87	85
Osasun txartela irakurriz sartzea (%)	28	21	16	12	13	15
Guztira	100	100	100	100	100	100

Horri dagokionez, esan beharra daukagu ezen txartela irakurri ez izanari buruzko arrazoiak aipatu beharko litzatekeen arren, ia kasu guztietan ez dagoela justifikazio ulergarri bat NAIKPa eskuz sartu izanari buruz.

Bestetik, nabarmentzekoa da ezen informaziora eskuz iritsi den kasuen portzentaje aipagarri batek ez dakarrela berekin dispentsazio bat egitea, ondoren erakusten dugun bezala:

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Eskuz sartzea, dispentsazioarekin	2.195.414	3.481.801	3.871.328	4.320.277	4.505.513	4.502.401
Eskuz sartzea, dispentsaziorik gabe	1.457.841	1.786.308	1.878.163	2.046.316	2.175.898	2.238.243
Eskuz sartzea, guztira	3.653.255	5.268.109	5.749.491	6.366.593	6.681.411	6.740.644
Eskuz sartzea dispentsaziorik gabe/guztizkoa (%)	40	34	33	32	33	33

* Sartze horien ehuneko bata deuseztatzei dagokie

Ikusi dugun bezala, aztertutako aldirian, kasuen ehuneko 34an eskuz sartu zen gaixoen datuetara, medikamenturik dispentsatu gabe.

NAIKP eskuz sartzeak berekin dakar honako arrisku hauek egotea: "dispentsazioak hutsean" deitzen ditugunak gerta daitezke; halakoak dira O-NOZi medikamentuak fakturatzea dakartenak, medikamentu horiek gaixoari eskuratu gabe, kupoa barne, eta medikamentua gordez; bestetik,

okerrak ere gerta daitezke, zeinek ekar baitezakete gaixo bati ematea beste gaixo batentzat agindutako medikamentuak.

Izan ere, horixe da errekerimendu-ebazpenak eman eta zehapenak ezarri diren errezeta elektronikorekin zuzenean lortutako arrazoi nagusia, Ikuskapen Atalak emandako informazioaren arabera; hona hemen horri buruzko xehetasunak:

	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Ikuskatzea						
Ikuskatzearen arrazoiak						
Ofiziozkoa	98	76	71	49	74	70
Salaketa	7	2	1	10	4	3
Besterik	61	103	93	85	69	98
Guztira	166	181	165	144	147	171
Errezeta elektronikorekin lotutako errekerimenduak						
Errekerimenduen arrazoiak						
Hutsean egindako dispentsazioak	1	0	2	3	1	3
NAIKPen zerrenda, gaixoa presente egon gabeko sartzei buruzkoa. Itzultako produktuen dispentsazioa.	0	0	1	0	1	0
Bilgarrien zatikatzea	0	0	1	0	0	0
Fakturazio-orrian itsatsi gabeko kupoiak	0	0	0	0	1	0
Fakturazio-prozeduraren ez-betetzea						
Errezeta elektronikorekin lotutako zehapenak						
Zehapen kopurua	9	2	3	4	0	3
Diru-kopurua	180.000	60.000	25.000	57.000	0	20.000 ^a
Zehapenaren arrazoiak:						
Hutsean egindako dispentsazioa	7	2	3	4	0	3
Kupoirik gabeko medikamentuak, itzulketatik datozenak	3 ^b	0	0	0	0	0

^a Zehapen bati dagokion zenbatekoa izapidetzeko dago.

^b Zehapen bat bi arrazoiengatik ezarri zen.

- Aztertzen ari garen kudeaketaren garrantzia gorabehera, eta nahiz eta O-NOZek LAMIAREN garapen informatikoa egin zuen, nabarmendu behar dugu ezen kupoiak digitalizatzeaz arduratzen den kanpoko enpresa izan zela farmazien software desberdinen, NFEoren —faktura-egilea— eta LAMIAREN arteko informazio-trukerako eta integrazioarako pasarela informatikoa diseinatu zuena.

Alderatzeak

- Alderatzeak egiteaz arduratzen den pertsona hilerio Nomenclator fitxategia gaurkotzen eta kargatzen duen bera da; horrek esan nahi du eginkizunen bereizketa ez dela egokiena, eta, gainera, pertsona horren lan-zama bereziki aipagarria dela egun jakin batzuetan.

- LAMIAREN alderatzeetarako modulu bat badauka, zenbait gurutzatze egiteko balio duena, baina horiek egiten dituen pertsonak ez du guztiz erabiltzen, denborarik ez duelako edo lortutako emaitzen zehaztasun faltarengatik; izan ere, behar duen informazio guztia ez du, eta datuak aldatu behar izaten ditu haiek egin ahal izateko.

Horri buruz esan beharra daukagu LAMIAREN azken bertsioa 2018ko abenduan ezarri dela, eta nabarmen hobetu duela datuen tratamendua; horrek, ustez, aukera emanen du aplikazioak eskaintzen dituen alderatzeak erabilgarriagoak eta produktiboagoak izan daitezen; horri buruzko egiaztapenik, ordea, ez dugu egin.

- Fakturen alderatzeak egiteko prozedura estandarizaturik ez dago, eta halakoak egiten dituen pertsonak ez ditu beti alderatze berdinak egiten, eta daukan denboraren arabera, kontrol gehiago edo gutxiago egiten ditu; aurreikusita dago 2018ko abenduan, LAMIAREN gaurkotzea ezarri ondoren, prozedura hori formalizatzea. Bestetik, egindako berrikuspen eta gurutzatzeak ez dira jasota uzten.

- Faktura berrikusteko prozesuan, ez da egiaztatzen aplikatutako beherapen eta ordainketak aplikatzekoa den araudiari dagozkionik; halere, berrikusitako hilabeteetako fakturretan egiaztatu dugu zuzenak direla deskontatutako eta ordaindutako zenbatekoak.

V.2. FARMAZIA-PRESTAZIOAREN KUDEAKETARAKO PROZESUA BETETZEARI BURUZKO AUDITORETZA ETA AUDITORETZA FINANTZARIOA

Farmaziaren kudeaketari aplikatzekoa zaion oinarritzko araudia betetzeari buruzko auditoretza bat egin dugu, honako alderdi hauei dagokienez:

- NFEOK O-NOZi egiten dizkion fakturen araudian medikamentu eta osasun produktuetarako zehaztutako prezioak aplikatzea.
- NFEOK O-NOZi egiten dizkion fakturen araudian ezarritako beherapenak egitea.
- Herritar bakoitzaren ekarpenaren ehunekoa kalkulatzea, horrek zehazten baitu, kenketa eginez gero, O-NOZek ordaindu behar duen zenbatekoa.
- Medikamentu eta osasun-produktuen prezioa gaixoei aplikatzea farmazia-bulegoetan.

Gure analisisa egiteko, prozeduran egindako ebaluazioa kontuan hartzeaz gainera, 2017ko azaroko eta 2018ko abuztuko fakturak aztertu ditugu, eta 98 tiketetan lagin bat hartu dugu. Tiket horiek guztira 50 farmazia-bulegotakoak dira, 147 medikamenturi dagozkie eta 2.941 euroko kopurua egiten dute; horietatik gaixoei 704 euro jarri zituzten guztira. Honako hauek dira horri buruz atera ditugun konklusioak:

- Bai prezioak, bai NFEOK O-NOZi aplikatutako beherapenak aplikatzekoa den araudian ezarritakoak dira.
- Herritarren ekarpenaren ehunekoari dagokionez, bera baita O-NOZen gastua finkatzen duen parametroa, txosten honen III. atalean aipatu dugun bezala, ezin izan dugu egiaztatu zuzena den ala ez, zeren eta ezin izan baitugu eskuratu Nafarroako Zerga Ogasunak GSINi igortzen dion fitxategia. Prozesu hori dela-eta egiaztatu ahal izan dugun zati bakarra da O-NOZek 2018ko abenduan egindako datu-gaurkotzeari dagokiona da; izan ere hura zuzena izan zen, eta ministroak igorritako fitxategiari zegokion.

Horri buruz egiaztatu ahal izan dugu ezen, 2018ko abenduan gaixoen ekarpenaren ehunekoari buruz egin dugun urteko azken gaurkotzea eta gero, tiketetan berrikusi dugun laginaren bi kasutan, portzentaje hori ehuneko 40koa dela, ehuneko 50ekoa izan beharrean. Horrek esan mahi du kasu horietan O-NOZ araudiaren arabera dagokiona baino kopuru handiagoa ordaintzen ari dela.

V.3. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

Horrenbestez, Ganberak uste du ezen, errezeta elektronikoaren ezarpenak, haren fakturazioa barne dela, aurrerapen oso garrantzitsua ekarri duela farmazia-prestazioaren kudeaketan, eta aukera eman duela nabarmen hobetzeko kudeaketa horri lotutako gastuaren kontrola. Kudeaketa hori 2017an 138,75 milioi eurokoa izan zen. Kontrol hori, segur aski, hobetu egingen da 2019an SEVEM ezartzen denean; izan ere, horrek berekin ekarriko du medikamentuen bilgarri bakoitzaren identifikazio eta trazabilitate zalantzarik gabea egiteko prozedura bat ezartzea.

Farmazia-prestazioaren kudeaketari eusten dioten informazio-sistemek bilbe teknologikoa konplexu bat osatzen dute, zeinaren gainean, oro har, kontrol egoki bat bai baitago, eta aplikatzekoa den araudia bete egiten da. Aplikatutako sistema horien auditoretza-prozedurek aukera eman digute beste lan batzuetan bildutakoa baino ebidentzia nabarmen handiagoa lortzeko; gure ustez, horrexek izan behar du Ganbera honek funts publikoen kudeaketa sakontasun handiagoz ebaluatzeko eta hura hobetzeko etorkizunean egiten dituen lanetarako ildoak, auditatutako enteek horretarako behar den informazio guztia ematen badute.

Bestetik, egiaztatu dugu ezen, IBPZNk azpikontratututako laguntza erabatekoa eta gure fiskalizaziorako funtsezkoa izan den arren, Ganbera honek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren informatikaren kudeaketari buruz 2016ko ekainean egindako txostenak adierazten

zuen bezala, aplikazio informatikoen garapena, mantentzea, euskarria eta jardutea Administrazioetik kanpo kontratatutako laguntza teknikoaren bitartez gauzatzen dela, eta horiei dagokiela haiei buruzko ezagutza teknikoa izatea; egitate horrek eragiten du entitate horietako langileekiko mendekotasun bat izatea. Txosten horretan jada aipatzen genuen bezala, hori giza-faktorearen halako deskapitalizazio bat eragiten ari da, bai eta Administrazioarentzako arrisku bat ere, zeren eta ez baitauka aztertu ditugun aplikazioei buruzko behar adinako ezagutza teknikoa duen langile propiorik.

Egindako lana kontuan hartuta, ondoren aztertutako kudeaketa hobetzen lagun dezaketen gomendioak azaltzen ditugu:

ATENEA, HCI eta LAMIA

- *Erabiltzaileen sarbideen kudeaketa-prozedura gaurkotzea, fluxu-irudi desberdindu bat ezarri erabiltzaile-mota bakoitzarentzat, erabiltzaile aktiboaren aldizkako berrikuspena jasoko duena.*
- *LAMIAko erabiltzaileen sorrera-data eta haiek nork egin zituen erregistratzea, sarbideen kudeaketa-prozedura jarraituz eta auditoretzaren loga aktibatuz, gutxienez ere administrazioari erabiltzaileak sisteman sortu eta aldatzea monitorizatzen.*
- *Erabiltzaile bakoitzari LAMIAko modulu desberdinen rol egokia eskaintzea, esleipen horren arrastoa utziz, bai eta nork baimendu dituen ere, erabiltzaileen historikoa kontrolatu ahal izateko.*
- *LAMIAan aktibo dauden erabiltzaileen berrikuste eta garbitze exhaustiboa egitea, eta, bidezkoa bada, O-NOZen jada zerbitzuak ematen ez dituztenak kentzea.*
- *Garatzaileak diren erabiltzaileei, horretarako baimenduta egon arren, aldi baterako sarbide ez-jarraitua ematea, irakurle gisa, produkzio-ingurunerako, gorabehera konponbidea emateko eta zabaltzea baliozkotzeko, nolahi ere haren jardura sisteman modu erregularrean monitorizatuz.*
- *LAMIAren produkzioarako pasatze guztien erregistroa duen log bat mantentzea, produkzio-ingurunean, tresna horretatik aldaketak zuzenean atera ahal izateko.*
- *ATENEAn eta HCIn pasahitzen politika indartzea, biltzen dituzten datuen konfidentzialtasun-maila kontuan hartuta.*
- *Aplikazioen segurtasun-politikak formalizatzea, halako moduz non irisgarriak izanen baitira haien erabiltzaileentzat.*
- *Probak egitearen egoera aplikazioan gaurkotzea kasuko proba amaitutzat eman baino lehen, baldin eta okerrak izan badira.*
- *O-NOZek aplikazio guztietan informazioa integratzeko pasarela edo mekanismo guztiak ezartzea, halako moduz non kontrol egokia eginen baita, betiere inplikaturako prozesuei ahal den segurtasun handiena ematen dieten baldintzak ezarri.*

Nomenclator fitxategiko datuak O-NOZen informazio-sistemetan sartzea

- *Eginkizunen segregazio egokia egitea, txostenean zehar identifikaturako farmazia-prestazioko kudeaketa prozesuaren faseetan, zeinetan atazak pertsona bakarrarengan kontzentratu baitaude, eta haietarako langile gehiago hartzea.*
- *Nomenclator fitxategiko informazioa O-NOZen informazio-sistemetan sartzeko prozedura gaurkotzea.*
- *Nomenclator fitxategiaren gaurkotzearen arabera egindako aldaketen log bat mantentzea, kontuan hartuz LAMIAra eta beste sistema batzuetara sartzeko diren datuak direla.*

Preskripzioa

- *LAMIAan bilgarrien kopurua dela-eta muga bat jasotzea, haiek agintzeko unerako, salbu eta behar bezala justifikatuta dauden salbuespeneko kasuetan.*

- *Sinadura automatikoa kentzea langile fakultatiboek beraiek proposatutako preskripzioetan, gaixoen tratamendu-erititik ateratzerakoan, edo, kasua bada, inguruabar horri buruzko abisu bat sartzea.*
- *Gaixoari kasuko tratamendu-erria ematea, eta hartan berariaz jasota egotea medikazioaren kostua eta hura farmazian jasotzeko epe balioduna.*
- *Aztertzea komenigarria den taloitegiak kasu guztietan mantentzea, eta, horrenbestez, paperezko errezetak erabiltzeko aukerari eustea, agerian jarri diren gabeziak ikusita.*
- *Erretirodun langile fakultatiboentzako paperezko errezeten taloitegiak kentzea; taloitegiak edukitzeko aukera horri eutsiz gero, lanbiderako gaitasun-ziurtagiria eskatzea eta kontrolatzea ea preskripzio horien gaixo hartzaileak fakultatiboa bera eta harekin bizi diren senideak diren.*
- *Paperezko errezeten hartzaile diren gaixoen norbanakoaren osasun txarteleko taldea egoki betetzea, farmaziek erabiltzaileei dagokien ehunekoa kobra diezaieten, baldin eta preskripzio-formatu horri eusten bazaio.*

Bisatua

- *Preskripzioa egiten duten langile fakultatiboek behar adina datu sartzea medikamentuen bisatua eskatzeko, eta ahal den guztia preskripzio horien baimentzea automatizatzea, gaixoen historia klinikorako sarbidea hertsiki beharrezkoa den kasuetarako mugatuz.*

Dispentsazioa

- *Behar diren mekanismoak ezartzea farmaziek gaixoaren datu gehienetara sartu ahal daitezkeen osasun-txartelaren irakurketaren bidez, eta hala ez bada, horretarako arrazoi zehatza adierazi.*
- *Bermatzea gaixoen medikamentu bat eskuratzeko ordaindutako prezioak, farmazia-bulego guztietan, bat datozeala araudian ezarritakoekin.*

Alderatzeak

- *NFEOk O-NOZi egiten dizkion fakturretan alderatzeak egiteko prozedura diseinatu eta formalizatzea.*
- *Farmazia-prestazioaren hileroko fakturretan jasotako ordainketaren eta beherapenaren zenbatekoak berrikustea, aplikatzeko den araudiaren arabera diren egiaztatuz.*
- *Farmazia-prestazioaren faktura kontrolatzerakoan egindako berrikuspen, egiaztapen eta alderatzeak jasota uztea.*


Alderdi orokorrak

- *Aztertzea informatikaren alorreko langileen plantilla egokia ote den, eta, kasua bada, kasuko enplegu-eskaintza publikoak egitea, eskainitako lanpostuetarako dei eginez, kudeaketan erabiltzen diren aplikazio informatikoei buruzko ezagutza teknikoak duten langile propioak edukitzeari begira.*
- *Nafarroako Zerga Ogasunak Nafarroako Kontuen Ganberaren informazio-errekerimenduak betetzea, azken horrek bere eginkizun eta ahalen arabera egindakoak, Ganberak bere fiskalizazio-lana guztiz bete ahal dezan.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko martxoaren 28an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. FARMAZIA-PRESTAZIOAREN KUDEAKETA-PROZEDURAREN ESKEMA TEKNOLOGIKO OROKORRA



2. ERANSKINA. FARMAZIA-PRESTAZIOAREN KUDEAKETARI APLIKATZEKO ZAION OINARRIZKO ARAUDIA

Otsailaren 23ko 175/2001 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baitira maisu-formulak eta farmazia-prestakinak zuzen egiteko eta haien kalitatea kontrolatzeko arauak.

Uztailaren 16ko 197/2001 Foru Dekretua, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea farmazia bulegoen arloan garatzeko arauak ematen dituena.

Maiatzaren 11ko 618/2007 Errege Dekretua, medikamentuak agintzeko eta dispentsatzeko baldintzetan, bisatu bidez, erreserba bereziak ezartzeko prozedura arautzen duena.

Uztailaren 26ko 1261/2007 Ebazpena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez baimena ematen baitzaie Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko taloitegi ofizialak erabiltzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagile erretiratuei, Nafarroako Sendagileen Elkargo Ofizialean kolegiatuta daudenei, beraien eta beraiekin bizi diren senideen erabilerarako.

Maiatzaren 16ko 823/2008 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baitira giza erabilerarako medikamentuak banatzeari eta dispentsatzeari dagozkien tartekak, kenkariak eta beherapenak.

Martxoaren 26ko 4/2010 Errege Lege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalaren kargurako farmazia-gastua arrazionalizatzeari buruzkoa.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua, defizit publikoa murrizteko ohiz kanpoko neurriak hartzekoa.

Irailaren 30eko 1936/2011 Ebazpena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana. Horren bidez, derrigorrez bete beharreko jarraibideak xedatzen dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sendagaiak printzipio aktiboaren arabera eta osasun arloko produktuak izendapen generikoaren arabera errezetatzeari dagokionez.

Abuztuaren 3ko 1192/2012 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Osasun Sistema Nazionalako asegurdun edo onuradun izaera, Espainian osasun-laguntza sistema horren bidez eta funts publikoen kargura jasotze aldera.

Irailaren 18ko 71/2012 Foru Agindua, Osasuneko kontseilariak emana, farmazia-bulegoen marjinen indize zuzentzailea aplikatzeko prozedura ezartzen duena.

Urriaren 19ko 18/2012 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzkoa.

2013ko otsailaren 18ko Ebazpena, Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Oinarrizko Zerbitzu Zorroaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez gaurkotzen baita Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestaziotik kanpo geratzen diren medikamentuan zerrenda eta bisatu bat ezartzen baita Osasun Sistema Nazionaleko farmazia-prestaziotik kanpo geratu diren baina dagokien talde terapeutikoaren arabera ezarrita dauden indikazioetarako aparteko kasuetan finantzatuta dauden medikamentuetarako.


Otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsonen.

2014ko abenduaren 15eko Ebazpena, Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Oinarrizko Zerbitzu Zorroaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez gaurkotzen baita ekarpen murriztuak diren ATC taldeetako medikamentuei dagokien gehieneko zenbatekoa, eta gaurkotzen baitira asegurdunaren izaera duten pertsonentzako —Gizarte Segurantzako pentsiodunak eta haien onuradunak— farmazia-prestazio ambulatoriorako hileroko ekarpenaren gehieneko mugak.

Osasuneko kontseilariaren /2015 Foru Agindua, LAMIA-Nafarroako errezeta elektronikoen erregistroa sortu eta arautzen duena eta dagokion datu pertsonalen fitxategia sortzen duena.

Uztaila 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalerako ororentzako sarbideari buruzkoa.

3. ERANSKINA. O-NOZEN ERREZETA ELEKTRONIKOA KUDEATZEKO PROZEDURA



BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**NFEO-NAFARROAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ALEGAZIOAK**

“Bestelako gaiak edo oharpenak, legezketasuna betetzeari buruzko iritzian eraginik ez dutenak” izenburua duen IV. atalari dagokionez:

1. 16. orrialdearen azken paragrafoan (17. orrialdean jarraitzen du), honako hau dio:

“Egiaztatu dugu ezen 2018an, farmazietako softwareek dispentsazioak direla-eta LAMIARA bidaltzen dituzten datuen arabera, 103.668 kasutan farmaziek araudian ezarritakoaz beste prezio batean eman izan dituztela produktuak. Informazio horren arabera, 589 farmaziek emandako 2.167 produkturi dagozkien 48.740 kasutan, gaixoek behar zena baino 16.511 euro gehiago eta 2.006 euro gutxiago ordaindu izan dituzte; horrek 14.505 euroko eragin garbia du farmazien alde. Gainerako kasuek ez lukete eraginik izanen gaixoak ordaindutako prezioan, honako arrazoi hauek direla eta: ekarpenik ez duten medikamentuak dira, edo ehuneko 100 finantzatzen direnak, eta prezio desberdinetan saldu ahal dira, araudian ezarritako muga batekin; ekarpen murriztuko medikamentuak dira, zeinetan gaixoak 4,24 euroko gehieneko muga ordaintzen baitu, prezioa zein den ere; edo prezioa sartzetakoan hamarrenkotan akatsen bat egin den medikamentuak dira”.

1. alegazioa:

Inon ere ez dago jasota paragrafo horretan gaixoek ordaindutakotzat aipatzen diren zenbateko horiek zehatzak direnik. Izan ere, deigarri gertatzen da ezen paragrafoaren testuan baldintzazko adizkia erabiltzen dela, zeinak adierazten baitu egintza bat gertatzeko posibilitatea, ez ziurtasuna. Estimazioa farmaziek LAMIARA bidalitako softwarearen datuetan oinarritu da, baina ezin izan alderatu farmazietako egunerokoekin ea prezio hori ote zen gaixoari kobratzeko erabiltzen zena. Nabarmendu daiteke ezen datu hori geroztik sekula ere ez dela ez erabili ez analizatu, zeren eta ez baitu eraginik NFEOren eta O-NOZen arteko fakturazio-prozesuan; horrenbestez, ezin da baztertu datuak bidaltzerakoan egindako oker bat izatea (hala ulertu izan da hamarrenetan izandako akatsekin), eta ez gaixoaren ekarpena kalkulatzeko oinarri gisa erabili den zenbatekoaren okerra.

Arrazoi horiek direla eta, hasieran aipatutako paragrafoa kentzeko eskatzen dugu.

2. 17. orrialdearen bigarren paragrafoan honako hau aipatzen da:

Farmaziek gaixoari fakturatzetakoan erabilitako prezioak Nomenclator fitxategitik ez lortzeak, eta horretan egindako akatsek, aurreko paragrafoan aipatu dugun bezala, ez dute eraginik O-NOZen gastuan, eta diru-kopuruak ez du eragin aipagarririk 2018an egindako dispentsazioen guztizkoan (10,39 milioi). Gure ustez, ez da arrazoizkoa gaixoek medikamentu berarengatik zenbateko desberdinak ordaintzea, araudiak ezarritakoez bestelakoak, nahiz eta egoera hori 2018ko dispentsazioen ehuneko batean baizik ez den gertatu”.

2. alegazioa:

Jakina da behin-behineko txosten honen 12. orrialdean eta 30. orrialdean aipatzen diren 98 tiketetan, 50 farmaziatatik heldutakoetan, akats batzuk detektatu zirela gaixoaren ekarpenean; geure erantzukizuna hartu behar dugu arauaren betetzea bermatzeari dagokionez eta eskerrak eman nahi ditugu auditoretza honek balio izan digulako ezagutzeko akats batzuk egin egiten direla, nahiz eta portzentaje oso garrantzitsuak ez izan; hori dela eta, proposatzen dugu aurreko paragrafoa honela idatz dadila:

«Farmaziek gaixoari fakturatzetakoan erabilitako prezioak Nomenclator fitxategitik ez lortzeak, eta horretan egindako akatsek, 50 farmazia-bulegoetan egindako dispentsazioei dagozkien 98 tiketen lagin batean konprobatu dugun bezala, O-NOZen gastuan eraginik izan ez badute ere, eta akatsak ere dispentsazioen guztizkoan ehuneko aipagarri bat ez badira ere, gure ustez ez da arrazoizkoa gaixoek medikamentu bera dela-eta diru-zenbateko desberdinak ordaintzea, eta zenbateko horiek araudian ezarritakoez beste batzuk izatea».

V. apartatuan, “Konklusioak eta gomendioak” izenekoan:

1. 22. orrialdean, 3. oin-oharreen, hauxe dio:

“Zalantzazko bideragarritasun ekonomikoa” duten farmazia batzuk badaude, ezarritako fakturazio-zenbateko jakin batera iristen ez direlako. Nafarroan, sektorea liberalizatuta dagoenez, gisa horretako 70 farmazia badaude, Estatuaren gainerakoan baino gehiago, proportzioz”.

3. alegazioa:

Nafarroan indarrean den farmazia-antolamenduak aukera ematen badu ere farmazia-kopuru handiago bat irekitzeko, ezin da “sektorearen liberalizazioaz” hitz egin, zeren eta farmazia-bulegoek, Estatuko gainerako lurraldeetan bezala, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeak erregulatutako jarduera bat izaten jarraitzen baitute; izan ere, foru lege horrek honako hauek ezartzen ditu, besteak beste: titulartasun- eta jabetza-baldintzak, farmazien arteko distantzia eta biztanleen kopurua.

Horrenbestez, honako testu hau proposatzen dugu:

«Zalantzazko bideragarritasun ekonomikoa” duten farmazia batzuk badaude, ezarritako fakturazio-zenbateko jakin batera iristen ez direlako. Nafarroan, farmaziaren arloko antolamendu berezia duenez, gisa horretako 70 farmazia badaude, Estatuaren gainerakoan baino gehiago, proportzioz».

Iruñean, 2019ko martxoaren 26an

Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko lehendakaria, Marta Galipienzo Jiménez

OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN FARMAZIA-PRESTAZIOAREN KUDEAKETARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EMANDAKO ERANTZUNA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren farmazia-prestazioaren kudeaketari buruzko behin-behineko txostena aztertuta, Nafarroako Zerga Ogasunak honako alegazio hauek egiten ditu:

1. Nafarroako Zerga Ogasunari gomendatzen zaio Kontuen Ganberari buruzko informazio errekerimenduak bete ditzala.

Behin-behineko txostenak, 34. orrialdean, Nafarroako Zerga Ogasunari honako hau gomendatzen dio: “Nafarroako Kontuen Ganberaren informazio-errekerimenduak betetzea, azken horrek bere eginkizun eta ahalen arabera egindakoak, Ganberak bere fiskalizazio-lana guztiz bete ahal dezan”.

Horri dagokionez, ondorengo alegazio hauek egin behar dira:

Nafarroako Zerga Ogasunak erantzun puntuala eman du, idatziz eta errekerimendu bakoitza dela-eta —horren barne modu informalean egin direnak— arrazoiak emanez; salbuespen bakarra, azken errekerimendua izan zen, zeina jaso baitzen behin-behineko txostenaren data baino lau egun lehenago; horrenbestez, haren erantzuna oraindik ere izapidetzen ari da.

Ondoren, Kontuen Ganberak egin eta guk jaso ditugun eskaerak aipatzen ditugu, eta Nafarroako Zerga Ogasunak haiei erantzuna noiz eman zien:

•2018-12-18an. Kontuen Ganberako informatikako teknikari batek telefono-dei bat egin zuen, eta ondoren posta elektronikoko mezu bat igorri zuen, fitxategia igor zedin eskatzeko.

Nafarroako Zerga Ogasunak 2018-12-19an erantzun zuen esanez eskaera formala aurkeztu beharra zutela. Erantzunean zalantza batzuk aurreratzen dira eskaera Nafarroako Tributuei buruzko Lege Orokorraren 105.1 artikuluan ezarritakoaren arabera izateari buruz.

•2018-12-20an, teknikari berak posta elektronikoko beste mezu bat bidali zuen, galdetzeko zein bidetatik aurkeztu behar zuten eskaera.

Egun berean, Nafarroako Zerga Ogasunak erantzun zion esanez erregistro bidez aurkeztu behar zutela.

•2018-12-21ean, Kontuen Ganberak beste eskaera bat egin zuen Nafarroako Zerga Ogasunak ogasuneko informazio-sistemetan erabiltzaileen eta baimenen kudeaketarako haren esku jarritako aplikazio baten bitartez.

Biharamunean, 2018-12-22an, eskaera ikusita eta aipatutako eskaera formala aurkeztu ez zela ikusita, posta elektronikoz erantzun zitzaion.

•2018-12-24an, Kontuen Ganberak posta elektronikoko bidez harremanetan jarri zen Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailearekin, fitxategia laga zekion eskatuz. Kudeaketako zuzendaritzak Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariari eta Tributuen arloko Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendariari igorri zien mezu hori, eta azken horrek, berriz, Proiektuak Bulkatzeko, Prozedurak Hobetzeko eta Segurtasunerako Ataleko buruari, zeina Nafarroako Zerga Ogasuneko segurtasunaren arloko erantzulea baita.

2018-12-27an, Nafarroako Zerga Ogasunak posta elektronikoko bidez erantzun zion Kontuen Ganberari, lagapen horrek legezko gaikuntzarik ez zuela esanez.

•Kontuen Ganberak bilera bat eskatu zuen, nahi zuen datu-lagapena ukatu izanari buruz hitz egiteko. Nafarroako Zerga Ogasunak eskatutakoari erantzun eta 2019-01-10ean bilera hori egin zen. Bilerara, honako hauek joan ziren Kontuen Ganberaren izenean: idazkari nagusia, sistema informatikoetako goi mailako teknikari bat eta fiskalizazio-lan jakin hori zuzentzen zuen auditorea; Nafarroako Zerga Ogasunaren izenean, berriz, honako hauek: Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria, Tributuen arloko Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendaria eta Tributuen arloko Aholkularitza, Dokumentazio eta Zabalkunderako Ataleko burua.

Bileran, Nafarroako Zerga Ogasunak aurrez adierazitako irizpide juridikoa berretsi zuen, eta jakinarazi zuen ordura arteko irizpidea aldatzeko, eskaera formal eta zioduna aurkeztu beharra zegoela, eta Tributuei buruzko Foru Lege Orokorak ezarritako murriztapenak kontuan hartu behar harko zirela.

•2019-01-14an. Auditoreak posta elektronikoko bidez Proiektuak Bulkatzeko, Prozedurak Hobetzeko eta Segurtasunerako Ataleko buruari idazki bat igorri zion, eskaera berretsiz; harekin batera, ordea, ez zuen txosten juridikorik aurkeztu.

2019-01-30ean, Nafarroako Zerga Ogasunak lagapenari buruzko txosten bat bidali zion Kontuen Ganberari, azken idazkia ikusita; hartan ageri den konklusioa da lagapenerako legezko gaikuntzarik ez dagoela.

Halaber, dokumentu bat igorri zitzaion non fitxategia egiteko oinarri gisa hartzen diren arau eta irizpideak azaltzen baitira.

•2019-03-18an Nafarroako Zerga Ogasunean Kontuen Ganberaren errekerimendu bat jaso zen, 2019-03-15eko data zuena. Errekerimenduarekin batera, behin-behineko txostenaren 12. orrialdean aipatzen den txosten juridikoa zegoen.

Idazki hau aurkezteko datan, errekerimenduaren erantzuna izapidetzen ari da oraindik.

2.Nafarroako Zerga Ogasunak Kontuen Ganberarekin lankidetzan jarduteari ezezkoa eman izana.

Behin-behineko txostenak honako hau dio 13. orrialdean:

“Azken batean, uste dugu Nafarroako Zerga Ogasunak fiskalizazio honetan Kontuen Ganberari laguntza emateari emandako ukoa ez datorrela bat aplikatzeko den araudiarekin”.

Gure ustez ez dago justifikatuta Nafarroako Zerga Ogasunak Kontuen Ganberarekin lankidetzan jarduteari ezezkoa eman izanari buruzko iritzia.

•Datuen lagapen jakin bati ezezkoa emateak ez du esan nahi lankidetzan jarduteari ezezkoa eman izana. Ezezkoa emateko arrazoia legegileak Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 105. artikuluan ezarritako muga izan da.

•Nafarroako Zerga Ogasunak Kontuen Ganberari, bere fiskalizazio-lana errazteko, beste informazio bat igorri dio, zeinak aukera ematen baitio modu exhaustiboan auditatzeko Nafarroako

Zerga Ogasunaren jarduketa. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 105. artikuluari buruzko interpretazioaren desadostasunak ez dio eragiten informazio horri.

Zehazki, Nafarroako Zerga Ogasunak 2019-01-30ean dokumentu bat igorri zion Kontuen Ganberari, zeinean fitxategia egiteko oinarritzat hartzen diren arau eta irizpideak azaltzen baitira; horrekin batera, eranskin bat dator, zeinean arauak aplikatzen dituen eta datuak automatikoki lortzen dituen programaren iturburu-kodea osorik ageri baita.

Dokumentu hori igorri zen hain zuzen ere lankidetzan jarduteko asmoz eta orduan indarrean zen 15/2004 Foru Legearen 3.2.k) artikuluan —gaur egungo 11/2019 Foru Legearen 6.2.i) artikuluan— jasotako erakundeen arteko leialtasunaren printzipioa betez.

Bestetik, honako baieztapen hau ageri da behin-behineko txostenaren 17. orrialdean:

“Iritzi finantzarioari buruzko abstentzioaren oinarria

“[...] ez dugu sarbiderik izan Nafarroako Zerga Ogasunak Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari bidaltzen dion fitxategira, eta horrek eragotzi digu egiaztatzea zuzenak ote diren herritarrek medikamentuen eta osasun-produktuen ordainketari egiten dioten ekarpenaren ehunekoak, [...]”.

Nafarroako Zerga Ogasunak igorritako dokumentuak aukera ematen du aztertzeko Zuzenbidearen arabera ote diren magnitudeak homogeneousatzeko eta, horrenbestez, errenta-maila zehazteko aplikatutako arauak eta behar diren teknika fiskalak. Halaber, aukera ematen zuen kalkuluak berriz egiteko, Kontuen Ganberak ekarpenaren ehunekoa zuzen kalkulaturik ez egotearen susmoak dauzkan kasu zehaztetan, kalkuluan okerren bat ba ote dagoen zehazte aldera.

Bestetik, analisi hori ezin izaneren ezein egin GSINi bidaltzen zaion fitxategiarekin, hain zuzen ere bidaltzeko eskatzen zenarekin. Komenigarria da gogoratzea, gainera, Nafarroako Zerga Ogasunaren jarduketa errenta-maila zehaztera mugatzen dela, eta ez dela iristen ekarpenaren ehunekoa zehaztera; izan ere, hori GSINi dagokio eta, horrenbestez, Kontuen Ganberaren jarduketa-esparrutik kanpo dago.

Horrenbestez, uste dugu Nafarroako Zerga Ogasunak Kontuen Ganberari emandako informazioak interes handia duela, nahiz eta haren analisisa ez den behin-behineko txostenean jaso.

3.Kontuen Ganberak adierazi du nahi zuen datu-lagapena ukatzea ez dela Zuzenbidearen arabera ote

Behin-behineko txostenak honako hau dio 13. orrialdean:

“Azken batean, uste dugu Nafarroako Zerga Ogasunak fiskalizazio honetan Kontuen Ganberari laguntza emateari emandako ukoa ez datorrela bat aplikatzekoa den araudiarekin”.

Horri dagokionez, alegatu beharra dago lagapenari emandako ezezko guztiak Zuzenbidearen arabera oinarritu direla, eta Kontuen Ganberak ez diela ikuspuntu juridikotik ez erantzun, ez aurka egin, 2019-03-15eko errekerimenduari datorren txostenera arte, zeina oraindik ebazteko baitago.

Aitzitik, Nafarroako Zerga Ogasunak uste du ezen hain zuzen ere Kontuen Ganberaren eskaera dela, formulatu den terminoetan, aplikatzekoa den esparru juridikoan ahokutzen ez dena.

Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria, José Javier Zabaleta Zuñiga

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUAREN ALEGAZIOAK

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak farmazia-prestazioa dela-eta egiten duen kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egin duen behin-behineko txostenaren proposamenari dagokionez, ekarpen bat egin nahi nuke txostenaren honako konklusio hauei buruz:

•...Ganbera honek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren informatikaren kudeaketari buruz 2016ko ekainean egindako txostenak adierazten zuen bezala, aplikazio informatikoen

garapena, mantentzea, euskarria eta jardutea Administrazioetik kanpo kontratatutako laguntza teknikoen bitartez gauzatzen da, eta horiei dagokie haiei buruzko ezagutza teknikoa izatea; egitate horrek eragiten du entitate horietako langileekiko mendekotasun bat izatea. Txosten horretan jada aipatzen genuen bezala, hori giza-faktorearen halako deskapitalizazio bat eragiten ari da, bai eta Administrazioarentzako arrisku bat ere, zeren eta ez baitauka aztertu ditugun aplikazioei buruzko behar adinako ezagutza teknikoa duen langile propiorik.

Garrantzitsua iruditzen zait konklusio horiei buruzko xehetasun batzuk ematea, erreferentzia eginez Estatuko Administrazio Orokorren enplegu-eskaintza publikoak direla-eta ezarritako murriztapenei; izan ere, horiek ezinezko egin dute zerbitzuaren kanpoko kontratazioa lehengo egoerara ekarri. Hori dela eta, txostenaren amaierako testuan honako esaldi hau jaso dadin proposatzen dut:

•...Ganbera honek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren informatikaren kudeaketari buruz 2016ko ekainean egindako txostenak adierazten zuen bezala, aplikazio informatikoen garapena, mantentzea, euskarria eta jardutea Administrazioetik kanpo kontratatutako laguntza teknikoen bitartez gauzatzen da, eta horiei dagokie haiei buruzko ezagutza teknikoa izatea; egitate horrek eragiten du entitate horietako langileekiko mendekotasun bat izatea. Txosten horretan jada aipatzen genuen bezala, hori giza-faktorearen halako deskapitalizazio bat eragiten ari da, bai eta Administrazioarentzako arrisku bat ere, zeren eta ez baitauka aztertu ditugun aplikazioei buruzko behar adinako ezagutza teknikoa duen langile propiorik. **Azken urteetan, Estatuko Administrazio Orokorren aurrekontuei buruzko ondoko legeetan ezarritako murriztapenek —langileen berritze-tasei, enplegu-eskaintza publikoei, langileen plantillak handitzeari eta kanpoan kontratatutako langileak barneratzeko mugei buruzkoek— asko zaildu egin dute Nafarroako Gobernuaren zerbitzu informatikoaren kanpoko kontratazioa lehengo egoerara ekartzea.**

Oharra: Esaldia letra lodiz idatzi dugu gehitzea proposatzen dugun testua errazago identifikatzeko.

Zure esanetara nago erakunde horretatik behar diren azalpen guztietarako.

Iruñean, 2019ko martxoaren 26an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria, María José Beaumont Aristu

FARMAZIAKO ZUZENDARIORDETZAREN ALEGAZIOAK

Behin Kontuen Ganberak igorritako farmazia-prestazioaren kudeaketari buruzko txostenaren zirriborroa aztertuta, eta hura egiteko ardura izan dutenekin bilera egin ondoren, Osasun Departamentuak, Farmaziako Zuzendariordetzaren izenean, honako alegazio hauek egin nahi ditu:

Lehena. 20. orrialdeko c) apartatua. Preskripzioa.

Oraindik ere kode nazionalik ez duten medikamentu batzuen preskripzioa.

Proposamena:

Kode nazionalik ez duten medikamentu batzuen preskripzioa.

Bigarrena. 20. orrialdeko d) apartatua. Bisatua.

Bisatu administratiboa

Nafarroan aplikatzen da, patologia batzuetarako edo arrisku-talde batzuetarako egokiak diren medikamentu jakin batzuk finantzatzeko, baldin eta ministerioak zehaztutako baldintza jakin batzuk betetzen badira.

Proposamena:

Nafarroan aplikatzen da medikamentu jakin batzuetarako; hain zuzen, indikazio jakin batzuk direla-eta finantzatzen direnetarako.

Hirugarrena. 26. orrialdea

Nomenclator fitxategiko datuak O-NOZen informazio-sistemetan sartzea.

Prozesu hori pertsona bakar batek egiten du, eta lan hori egiteko ezarrita dagoen prozedura zaharkiturik dago.

Proposamena:

Prozesu hori pertsona bakar batek egiten du, eta lan hori egiteko ezarrita dagoen prozedura gaurkotu gabe dago.

Laugarrena. 29. orrialdea

Aztertzen ari garen kudeaketaren garrantzia gorabehera, eta nahiz eta O-NOZek LAMIaren garapen informatikoa egin zuen, nabarmendu behar dugu ezen kupoiak digitalizatzear arduratzen den kanpoko enpresa izan zela farmazien software desberdinen, NFEoren —faktura-egilea— eta LAMIaren arteko informazio-trukerako eta integratuziorako pasarela informatikoa diseinatu zuena.

Proposamena:

Aztertzen ari garen kudeaketaren garrantzia gorabehera, eta nahiz eta O-NOZek LAMIaren garapen informatikoa egin zuen, nabarmendu behar dugu ezen kupoiak digitalizatzear arduratzen den kanpoko enpresa izan zela farmazien software desberdinen, NFEoren —faktura-egilea— eta LAMIaren arteko informazio-trukerako eta integratuziorako pasarela informatikoa diseinatu zuena; izan ere, farmazia-bulego guztiek NFEori eskuordetua diote O-NOZen errezeten fakturazioa.

Proposatutako aldaketa txiki horiek kontuan har daitezzen espero dugu.

Iruñean, 2019ko martxoaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiegu NFEOri; Nafarroako Zerga Ogasunari; Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari, eta Osasun Departamentuari aurkeztu dizkiguten alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari erantsi zaizkio eta hori behin betikotzat jotzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen; horretan, salbuespena da NFEOk egindako zehaztapen bat, zeina 22. orrialdeko oin-ohar batean jaso baita.

NFEOk egindako alegazioen erantzuna

“1. alegazioari” dagokionez, esan beharra daukagu ezen, farmaziako softwareek gaixoei fakturatutako prezioei buruz LAMIARI igortzen dizkioten datuak kontuan hartuta, zenbateko horien eta Nomenclator fitxategian ezarritakoen arteko aldeak lortu ditugula, eta horren ondorioz desadostasun batzuk ateratzen direla, zeinak egindako dispentsazio guztien ehuneko oso txiki bat baitira.

Baldin eta, alegazioan aipatzen den bezala, ziurtasunik ezin badugu izan egiazki gaixoei kobratu zaien prezioari buruz, ezin izanen dugu inolaz ere segurtasunez baieztatu zuzen fakturatu zaien ala ez; egoera hori are kezagarriagoa izanen litzateke, zeren eta araudiak ezartzen baitu gaixoei ordaindu beharreko prezioek Nomenclator fitxategian ezarritakoak izan behar dutela.

22. orrialdeko oin-oharra aldatu dugu “3. alegazioan” adierazitakoa jasotzeko.

Nafarroako Zerga Ogasunak egindako alegazioen erantzuna

1. puntuari dagokionez, aipatu nahi dugu ezen Kontuen Ganberak, kasu horretan, informazioa eskatzeko ohiko prozedura bete duela, bere eskumenak eta gure erakundeari aplikatzekoa zaien araudia errespetatuz.

2. puntuan jasotako alegazioei dagokienez, honako hau aipatu behar dugu:

Nafarroako Zerga Ogasunak Ganbera honi emandako informazioak ez du auditoretza exhaustibo bat egiteko aukerarik ematen; izan ere, fitxategia sortzen duen programaren arauak, irizpideak eta iturburu-kodea eman zizkiguten arren, erakunde horri informatu genion ezin genuela horri buruz inongo konklusiorik atera, programa hori eta hartatik ateratzen zen fitxategia aplikatzen zitzaizkien datuak falta izateagatik. Hau da, Kontuen Ganberak prozedurei buruzko auditoretzak egiten ditu, baina beti egiaztatzen du haiek zuzen aplikatzen direla; halakorik ezin izan da egin, ordea, kasu honetan.

Horrenbestez, Nafarroako Zerga Ogasunak Ganbera honi emandako informazioa ez da ez nahikoa, ez egokia konklusio oinarridun bati iritsi ahal izateko; hori dela eta, gure txostenean ez da gai hori aipatzen.

Kontuan hartuta ezen egindako laginketan gaixoen ekarpenaren ehunekoak direla-eta akatsak badaudela egiaztatu dugula, kasu horietan ezin ditugu kalkuluak berriz egin (adierazi berri ditugun arrazoiengatik), eta ezin gara mugatu, ezta ere, akats jakin horiek aztertzeraz. Gure lana honako honetan datza: funts publikoen kudeaketa egokia egiaztatzea, tratamenduaren xede diren datu guztiak eta Nafarroako Zerga Ogasunak GSINi bidalitako fitxategia aztertuz, hartara, kasu bada, haiek zuzentzeko, O-NOZek araudiaren arabera dagokion gastua bere gain har dezan.

Gaixoaren ekarpenaren ehunekoa zehazteko prozesuak hiru fase dauzka: lehenengoan, Nafarroako Zerga Ogasunak GSINi fitxategi bat igortzen dio errenta-mailarekin; bigarrenetan, GSINek ekarpenaren portzentajea kalkulatu du, aurreko informazioa beste parametro batzuei gehituz; hirugarrenetan, O-NOZek bere datuak gaurkotzen ditu institutu horrek bidaltzen dizkienekin. Ganbera honen eskumenen esparruak bere baitan hartzen du lehenengo eta hirugarren faseen fiskalizazioa; txostenean jasota geratzen den moduan, egiaztatu dugu ezen hirugarrena zuzen egin zela, eta lehenengoa egiaztatzea baizik ez da gelditzen. Baldin eta fiskalizazioaren zati hori egin ahal izan bagenu, zehaztu ahalko genuen ea Nafarroako Zerga Ogasunak jarraitutako prozesua

zuzena zen. Zuzena bazen, Nafarroako Gobernuak GSIN premiatu beharko zuen gaixoaren ekar-penaren zenbatekoak zehazteko prozesua berrikus zezan.

Fiskalizazioaren zati hori aurrera eramateko behar zen informazioa falta zenez, ezin izan dugu zehaztu ekarpenaren ehunekoa zehazterakoan izandako akatsa Nafarroako Zerga Ogasunak fi-txategia sortzeko fasean gertatu den ala GSINek geroztik egiten duen tratamenduan gertatu den; ezin izan dugu egiaztatu, ezta ere, zenbat kasu akastun dauden. Hori dela eta, behar adina ebi-dentziarik ez dugu egiaztatzeko O-NOZek egindako gastua, aztertutako kudeaketatik heldu dena, egokia den.

Aurreko guztia alde batera utzita eta kontuan hartuta, Nafarroako Zerga Ogasunak bere ale-gazioetan aipatzen duen bezala, gure errekerimenduaren erantzuna oraindik ere izapidetzen ari dela, Ganbera honek espero du erantzuna baiezkoa izatea, etorkizuneko lanak egiteko behar den informazio guztia edukitzeko eta hartara funts publikoen kudeaketa hobetzen laguntzeko.

Iruñean, 2019ko martxoaren 28an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Nafarroako Parlamentuko jarduneko Legelari Nagusiaren 48/2019 ebazpena, maiatzaren 27koa.

Maiatzaren 26an bukatu da egungo gelazain nagusia bere lanpostuan egoten ahal den sei urteko gehieneko epea. Hori dela eta, lanpostu hori betetzeko gaur egun izapidetzen ari den merezimendu-lehiaketa bukatu arte, eta Nafarroako Parlamentuaren Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduko 15.3. artikularekin bat,

ERABAKI DUT:

1. Gelazain nagusi izendatzea, bitarte baterako, Antonio Ansorena Urriza jauna, zeina Nafarro-

ako Parlamentuko gelazainen kidegoko funtzionarioa baita. Ebazpen honek eragina izanen du 2019ko maiatzaren 27tik aurrera, aipatu burutza betetzeko merezimendu-lehiaketa ebatzi bitartean.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko maiatzaren 27an

Jarduneko Legelari Nagusia: Manuel Pulido Quecedo